

# K...eta kitto!

2019-XI-22

1120 zkia.

## Musikarekin maiteminduta





**ESKAINNTZA  
HAU  
\*!@#% DA!**

**Black Friday  
honetan, ez utzi ilerik  
ezta mingainean ere.**

Orain **saio/gune bakoitza 25€ bakarrik.**  
Bono edo konpromisorik gabe, erosketa mugarik gabe.  
Azaroaren 29tik abenduaren 2ra salgai online dendan.

**no+vello Eibar**

📍 Ego-Gain, 20,  
20600 Eibar (Gipuzkoa)  
☎ 943 53 88 05

**no+vello Azpeitia**

📍 Ildefonso Gurrutxaga, 8, Behea  
20730 Azpeitia (Gipuzkoa)  
☎ 943 04 44 22

[nomasvello.es](http://nomasvello.es)

**Black  
FRIDAY**



**Informaticando**

**KARTELERIA DIGITALA**

**ZURE NEGOZIOAREN IRAGARKIA. EIBAR ETA ELGOIBARREN.**

TABERNETAN



**ZINEMETAN**



**30  
PANTAILA**



HARATEGIETAN



OKINDEGIETAN



HARREMANETAN JARTZEKO

[WWW.INFORMATICANDO.EUS](http://WWW.INFORMATICANDO.EUS)

943 15 06 22



Euskara Elkarteak

**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkarteak.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18  
603 598 285.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabiak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkartea@etakitto.eus  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi  
eta Silbia Hernandez

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpurua

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez

**GAZTEON ATALA:**  
Malen Illarramendi

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
J.L. Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**  
Malen Jainaga  
eta Malen Illarramendi

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

**TELEFONOA:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Ekhi Belar

**BANAKETA-ARDURA:**  
Mohammed El Ghabali

**TIRADA:** 8.150 ale

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(...eta kitto! "k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO  
UDALA**



**GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZTA)**

# Eskutitzak

## Autoaren erroberak zulatuta topatzeko beldurrez

Erdi-beheko auzokideak ahaztuta gaude. Badira hilabete batzuk norbait autoen erroberak zulatzen hasi zela Barrena kalean, baita Sautsira doan bialaren inguruan ere.

Udalarekin auzorik auzo egiten diren bilerak zertarako dira? Gertatutakoaren inguruan Ertzaintzan salaketak egin dira, baina gero, bileran honi buruz galdetu eta zuen erantzuna hori buruz ezer ez zenekietela izan zen... Orduan, nolako neurriak hartu

dira arazo hau konpontzeko? Eguraldi txarrak mesede egin digu, baina berriz hasi dira agertzen erroberak zulatuta dituzten autoak. Beti beldurrez oheratzen zara, bihar nire autoa izango ote den pentsatzen... Zortea izanez gero, errobera bakarra zulatuta, baina agian lau erroberak zulatuta. "Amets polita" eta broma garestia!

**Iparragirreko auzokide bat**

### – OHARRA –

Sanandresak direla-eta, datorren asteko alea egun bat lehenago kaleratuko dugu (hilaren 28an, eguenean). Edozein informazio edo zorion-agur bidaltzeko epea ere egun bat lehenago amaituko da, hau da, martitzenean. Horrez gain, hurrengo astean ez da alerik izango (zubia eraginez) **eta 13an** kaleratuko dugu abenduko lehenengoa.

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MOLTSOTU.** - Pilatu, metatu baina inongo ordena barik. "Lehelengo moltsotu zittuen gauza guztiak leku baten, eta gero partilluak egin".

Gauzak ondo ordenatuta pilatzeari TOLOSTU esaten zaio. "Piezak kontuz tolostu bihar dira, maillaturik izan ez deixen".

## astean esanak

"Aurrez-aurreko solasaldietan minutu batean 25 aldiz kliskatzen badugu, pantalla baten aurrean bakarrik 5 aldiz egingo dugu, eta horrek begiak gehiago lehortzea dakar. Aldi berean, ez da komeni mugikorrek eta tabletak erabiltzea ilun dauden esparruetan. Ingurune argitsueta gure pupila kizkurtuta dago eta neurri handi batean argi urdina begian sartzea blokeatzen du. Baina ilunetan kontsultatzen baditugu gailuok, pupila dilatatu egiten da eta argi erradiazio handia sartuko zaigu begietan"

(JOSE LUIS GARCIA, PSIKOLOGOA)

"Inkesta baten arabera, 33 urtetik aurrera musika berriei buruzko interesa moteldu egiten ei zaigu, eta ikusirik azkenaldian, euskal musikaren barruan, euren ibilbidea aspaldi utzitako taldeak berpizteko dagoen joera, euskal entzuleria zahartu ote da? Euskal musikaren iragana oparua izan zen, ez dago ukatzerik, eta hor edukiko ditugu disko eta abestiak eskura nahi ditugunean entzuteko, baina beharrezkoak dira berpizte hauek? Nostalgia pozoia da kasu honetan, izan ginen horren inbidia, triste jarri baina lasaitzen gaituen droga. Nola edukiko dugu etorkizunik atzera begiratu besterik egiten ez badugu?"

(JAIONE DAGDROMMER, ZUTABEGILEA)

"Amerikako Estatu Batuetako Psikiatria Elkarteak DSM erreferentziako eskuliburua du buruko gaitzen ia %100 diagnostikatzeko; hondamendia izan da psikiatriarentzat. Hura oinarri hartuta, herrialde garatueta biztanleriaren erdiak diagnostiko psikiatriko bat izateko baldintzan betetzen ditu; erdiak buruko gaitz bat duela esatea astakeria da. Psikiatria da medikuntzaren adarrik bitxiena, ez baikara gai puntu objektiboak izendatzeko; ez dago begi bistakoa den ezer. Egundak zientziak agintzen du, baina medikuntza pertsona bati haren sufrimendua zuzenean laguntzeko artea da"

(JAVIER ALVAREZ, PSIKIATRA)





## Ekitaldiz bete dabe azarua Untzagako jubilau etxeak

Untzagako Jubilau Etxeak ez dake aspertzeko denporarik, azarorako prestau daben agendia bete-beteta dago eta. Hillaren hasieratik dihardue oin arteko eskintza zabalagua izateko ekitaldixak antolatzen. Bestiak beste, euren kultura orokorra hobetu eta matematiketan trebatu nahi dabenendako klasiak emoten hasi dira jubilatutako bi bazkide: M<sup>a</sup> Carmen eta Felix dira irakasliak eta informaziño gehixago nahi dabenak 943203320 telefonora deittu edo jubiletxeuntzaga@gmail.com helbidera idatzi leike. Aurreko barixakuan, barriz, urteroko moda desfilia egin eben, kantu eta musikarekin lagunduta. Eta astelehenetik aurrera "Larrabeiti pintor, Larrabeiti futbolista" erakusketia ikusi leike (abenduaeren 1era arte egongo da zabalik).


## 2.000 lagun batu ziran pensiño duinen aldeko manifestaziñuan

Eurixak eta hotzak ez zittuan jubilauek koldu eta zapatuan eskualde osotik etorritako 2.000 bat lagun alkartu ziran Untzagan, Debabarreneko pensionisten plataformak deittuta, pensiño duin eta publikuak eskatzeko egin zan manifestaziñuan parte hartzeko. 2018ko urtarillaren 15ian hasi ziran asteroko mobilizaziñuetan bezala, zapatuko ekitaldixan be 2011. eta 2013. urtietako legiak bertan behera lagatzia, 1.080 euroko gitxieneko pensiñua, 1.200 euroko gitxieneko soldatia eta pensiñuetan andra eta gizonen artian dagaizen aldiak desagertzia eskatu zittuen, bestiak beste.



## Semia zaintzeko lanaldixa murriztia eskatu eban amaren aldeko epaia

Premiña berezixak dittuan semia zaindu ahal izateko lanaldi murrizketia eskatu eban Estibaliz Blanco-ren alde egin dabe epaitegixetan. Hori dala-eta, eskatutakua ukatu zetsen Muprespa Mutua Fraternidadekuak murriztu egin biharko detsez lan-orduak. Diagnostiko bariko gaixotasunak eragindakuen alkartia (AFESD) sortu eban eibartarrak irailian herritarren baba lortzeko kanpaiñia abiatu eban sare sozialetan eta, horrekin batera, eskatutakua ukatzeko arrazoiaren inguruan galderia egin zetsan Eusko Legebiltzarrari, Osoigo webguniaren bitartez. Epailliak hartu daben erabagixarekin pozik dago Estibaliz eta lagundu detsan jende guztiari eskerrak emon nahi detsaz.



## Herriko dendarixak kanpaiña berezixak ipiñi dittue martxan

Gabonak gerturatzan doiazela eta, hori ospatzeko, Eibarko Dendarien Elkarreak 60 otar zozketatuko dittu bezueren artian. Zozketan parte hartzeko nahikua da azaruaren 25etik abenduaren 17ra bittartian alkarteko kidia dan dendaren batian zeozer erosi eta Eibar txartelarekin pagatzia.

Eta Eibar Merkataritza Gune Irekixak astelehenian hasiko dabe erosketa-bonuen kanpaiña. 177 establezimenduk hartuko dabe parte kanpaiñan eta, horri esker, bonua 40 eurotan erosten dabenak, 50 euro gastatzeko aukeria eukiko dau. Abenduaeren 21era arteko erosketetan erabili ahal izango dira bonuak eta astelehenetik aurrera ipiñiko dittue salgai EMGiren buleguan (Untzaga Plaza, 7), astelehenetik eguenera 09:15etatik 13:45etara eta 16:15etatik 18:15etara eta barixakuetan, barriz, 08:15etatik 14:45etara.







## 1937xan jaixotako eibartarrak sasoi betian ospatu eben euren jaixa

Azken 13 urtiotan bezala, 1937xan jaixotako eibartarrak aurreko barixakuan alkartu ziran, alkarrekin bazkaldu eta aurtan 82 urte betetzen dituela ospatzeko. Belaunaldi honek Gerra Zibillari, ondorengo gosari eta beste hamaika oztopori

egin behar izan zetsen aurre bizitzako lehen urtietan, baiña argi dago andra-gizon gogorak dirala eta, aurreko egunian be sasoi betian eta umoretsu ekin zetsen ospakizunari, Untzagan alkartu, zapixak banatu eta talde-argazkixa egin eta gero.



## 1946xan jaixotakuak zapatuan alkartu ziran

Urte horretan jaixotako ixa 50 lagun alkartu ziran zapatuan euren jaixa ospatzeko. Talde argazkixa egiteko hitzordua Untzagarako eginda zeken arren, eurixa etenbarik botatzen eba ikusitta, azkenian udaletxe barrura juan bihar izan ziran erretratu egiteko. Handik piskolabisa jatera juan ziran eta, horrelakuetarako preparatzen daben planari jarraituta, Untzaga Plaza hotelian bazkaldu eta, dantzaldixarekin amaittu eben jaixa.

# autuan

## ELIKAGAIXEN BILKETA HAUNDIXA

Gaur eta bixar egingo dabe Gipuzkoako Elikagaien Bankukuak bilketa berezixa, probintzia osuan zihar daguazun 200 bat dendatan, tartian Eibarko supermerkausetan. Elikagaien Bilketa Haundixari esker janari-premiñia daken 17.000 pertsoneri laguntzia espero dabe eta, horretarako, gitxienez 650.000 kg/litro elikagai bildu nahi dabe.

## HONDAKIÑAK PREBENITZEKO ASTIA

Udalak Hondakiñak Prebenitzeko Europako Astiarekin bat egin dau aurten be eta, horren harira, hainbat jarduera antolatu dittue gaurko: Untzagan hondakiñeri eta birziklapenari buruzko informaziño-puntua zabalduko dabe, 16:30etatik 19:30etara. Horrekin batera, 16:30etatik 18:30etara, umiendako eskulan taillarrak egingo dittue (karterak eta musika tresnak, birziklatutako materixalekin) eta 18:30etatik 19:30etara hondakiñen inguruko karakterizaziño publikua egingo dabe, hobeto birziklatzen ikasteko. Gaiñera, juaten diraneri olixua birziklatzeko enbudua oparituko detse.



## Abenduaren 14an

10:00etatik  
14:00etara  
karpa estalian

EIBARKO ELKARTE, IKASTETXE  
ETA HERRITAR GUZTIEK  
HAR DEZAKETE PARTE.

### BI AUKERA:

- 1- Erreserbatu salmenta postu bat (mahai bat) erabilitako zure gauzak saltzeko.
- 2- Utzi zure gauzak (15 gehienez) gordailu-salmentan eta antolakuntza-taldekoak arduratuko dira saltzeaz. EZ da hartuko arroparik ezta osagarriarik, tamaina handiko objekturik... Eraman gauzak egunean bertan 9:00etatik 10:00etara eta itzuli 14.00etan dirua edo/eta saldu ez dena jasotzera.

\*Oharra: Salmenta postu batean parte hartzeko **IZENA EMAN BEHAR DA** azaroaren 25etik abenduaren 5era eta baieztapena jaso. Adin nagusikoa izan behar duzu eta datu batzuk utzi (NAN eta telefonoa). Izena emateko **943 670 249** telefonora deitu.





Neledantza taldekuak saiuu egingo dabe. Yanire Sagredo

## Argixak, dantza emonaldixa eta tarta erraldoia Gabon-kanpaiñari ekiteko

Gaur ekingo detse Gabonetako kanpaiñari Eibarko El Corte Inglesekuak, 18:00etan hasiko dan fatxadako argixak ixotzeko ekitaldixarekin. Dendako arduradunekin batera Udaleko ordezkariak be hartuko dabe parte eta, gaiñera, dantza saiuu eskinduko dabe Nerea Lodosak zuzentzen daben Neledantza taldekuak. Plana biribiltzeko, eta gure herrixan El Corte Inglesak atiak zabaldu zittuala martitzenian 10 urte beteko dirala ospatzeko, ekitaldira juaten dan jendiaren artian 1.000 raziño-ko tartia banatuko dabe, duan, cavarekin lagunduta.

## Bigarren Eskuko Azokan postua ipintzeko izen-erotia

Udalak antolatuta Bigarren Eskuko Azokia egingo da abenduaren 14an, goizeko 10:00etatik 14:00xetara, Untzagan ipiñiko daben estalitako karpa batian. Azokan Eibarko alkarte, ikastetxe eta herritar guztiak hartu ahal izango dabe parte, bi modutan: erabilitako gauzak norberak saldu ahal izateko tokixa (mahaixa) erreserbautu; edo, nahixago izanez gero, saldu nahi diran gauzak (15 gehixen jota) gordailu-salmentan laga leikez, eta antolakuntza taldekuak arduratuko dira saltziaz. Edozelan be, salmentarako postua ipiñi nahi dabenak aurretik izena emon biharko dau, 943 670 249 telefonora deittuta (azaruaren 25etik abenduaren 5era arteko epia dago).

## Nagusilanek `Gure Balioak` sarixa jaso eban Coliseoan

Ondo merezittako aitortza egin zetsen aurreko asteko eguenian Nagusilan boluntario alkartiari, asmo horrekin Coliseo antzokixan egindako galan. Debegesa garapen agentziakuen ekimenez emoten daben Gure Balioak Sarixa aurten Debabarreneko herrixetan lan egitten daben Nagusilan alkarteko ordezkariak jaso dabe "eskualdeko zaharrekin erakusten daben solidaridade eta konpromiso sozialagaittik", bestiak beste.



## Trafiko istripuak saihesteko kanpaiña landuko dabe ikastetxietan

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saillaren "Don't be Dummy" / "Zuk ez duzu ordezkorik", trafiko-istripuak saihesteko asmuarekin Euskadiko ikastetxietan garatzen daben ekimen ibiltarixa Eibarrera aillegauko da datorren astian, martitzen eta eguaztenian. Arduradunak azaldu dabenez, "azaruaren 26xan, goizeko 10:00etan, Eibar Institutuko DBH4 eta Batxillergoko 371 ikasle eta 15 irakasleri eskinduko jakue saiuu eta, bixamonian Uni Eibar-Ermua Institutuko areto nagusixan beste saio bat egingo dogu, goizeko 10:00etatik aurrera, 475 ikasle eta 20 irakaslerendako. Ekitaldixan zihar hiru lagunnen testigantzak entzuteko aukeria egongo da. Izan be, Eibarko udaltzain batek, suhiltzaille batek eta bizkarrezur-muiñeko lesiñua dakan Alaitz Arbillak egingo dabe berba". Holako bizipenak "oso hunkigarriak" izaten dirala eta, horrekin gaztiengan gehixago eragittia lortzen dabela diñue.





**San Andres  
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

**Bidebarrieta, 28**  
☎ 943 20 79 73

**Javier Martin doktorea**  
Aurpegi-masailtako Kirurgilaria

- **AURPEGIA GAZTETZEKO KIRURGIA**
- **AURPEGIKO KIRURGIA ESTETIKOA**

**KONTSULTAK:** Centro Médico Eibar  
**KIRURGIAK:** Policlínica Gipuzkoa

679 334 371  
943 120 200

## Etxiak botatzeko biharrian jarraitu arren, zabaldu dabe Arragueta kalia

Aurreikusitta eguan moduan, martitzenian zabaldu eben errepidia Arragueta kalian eta oiñezkuak be bertatik ibiltzeko aukeria dake, beste espaloia erabillitta. Oindiok be kale horretako hiru etxiak, 11, 13 eta 15. zenbakixak eraisteko biharrian dabilta, baiña makiñak errepidetik kendu eta ointxe kaliaren beste aldetik ari dira etxiak botatzen. Aurreko astian 15. zenbakiko horma zati bat jausi zala eta, 17. zenbakixan bizi diranak etxetik kanpora etara zittuen eta,

aldameneko etxia botatziak eraikiñaren egonkortasunari eragiten ez detsala ziurtatzeko moduan egon arte, ez detse etxera bueltatzen lagako, badaezpada. Bixen bittartian Eibar eta Ermuko hoteletan eta Arrateko aterpetxian dagoz auzokidiak. Bestalde, 15. zenbakixa hustu eta jarraixan, gabaz bertara sartu ziran lapurrak eta ahal izan zittuen gauza guztiak eruan zittuen. Horren aurrrian, alkatiak ez eze beste askok gogor gaitzetsi dabe geratutakua.



## 1947kuak alkarrekin jai giruan

Aurten 72 urte egiten dabenak euren eguna ospatu eben aurreko eguenian, hillaren 14an. Herriko armen museua bisitatzeko aprobetxatu eben gero Hotel Unzagan bazkaldu aurretik. Bikain aprobetxatu eben ondo pasatzeko aukeria.

## Aurten be ospatuko dittue San Andresak Gasteizen

Gasteizen bizi diran eibartarrak aurten be San Andres jaixak ospatuko dittue 21. urtez jarraixan. Abenduaren 1ian egingo dabe jaixa: 13:00ian Toloño tabernan alkartu eta, Duo Amanecer taldiarekin batera, kalejiran ibilliko dira; bazkarixa 14:30xetan hasiko da, NH Canciller Ayala hotelian. Izena emoteko azken eguna eguaztena (azaruak 27) izango da, eibargasteiz@gmail.com helbidera idatzitta edo 659 16 88 78 telefonora Whatsapp bialduta. Bestalde, lehengo ohitturiari helduko detse atzera be eta San Andres bezperan txikiteuan ibilliko dira, 19:30xetan Toloñon hasitta.

**Izadi**  
**LORADENDA**  
 - Lora eta landare natural eta lehorrak  
 - Ezkontzetarako lorak  
 San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

**Radio Eibar**  
**CADENA SER**  
**104,0 FM**

**Funeraria-Ehortzetxe Mugica**

**EIBAR**  
 Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27

**ELGOIBAR**  
 Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

**Bulegoa Eibarko erdialdean**  
 Bulegoa Bidebarrieta, 20

**24 orduko zerbitzu iraunkorra**  
 ☎ 943 20 19 51 | www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

**Gabonetako OTARRA**

**2.000 €ko balioa duen Otarra**

Prezioa: 1€  
 Zoketa 2019ko abenduaren 11an egingo da  
 Zbk:

Euskara Elkarteak  
 Inklusioa 15 egunetara aurreratu ez bada, erabakiak eragoz zain atara.



# Telenobela errumaniarra

**A**na Faluica Suncuisen jaio zen, Errumania mendebaldean, Hungariako mugatik hurbil. *“Herri txikia da, lasaia, eta jatorri ezberdinetako jendea bizi da han: errumaniarrak, hungariarrak, ijitoak... nahasketa handia dago”*. 12 urte zituenean amamaren anaiarekin bizi zen ahizparen etxera joan zen bizitzera eta eurekin hazi zen. *“Oso harreman estua dugu ahizpak eta biok”*, baina zazpi anai-arreba dira guztira. Anak antzekotasunak ikusten ditu bere jaioterriaren eta Eibarren artean, *“menditsuak dira toki biak”*, baina zaila egiten zaio euriari aurre egitea. *“Temperatura aldetik antzeko klima dugu, baina han lehorragoa da”*.

## Txikitatik lanean

Eskolara txintxo joaten bazen ere, gaztetatik egin du lan. *“Oporraldian egiten nuen lan, dirua eduki nahi nuelako gurasoei eskatzen ibili barik”*. Onddoak batzen zituen enpresa italiar batean onddoak garbitzen egin zuen lan lehenik eta elikagaien industriako enpresa batean hasi zen gero. *“Patata frijituak, napolitanak, gozoak... egiten genituen”*. 20 urterekin ezkondu zen eta 28rekin banandu, *“eta, alokairuan bizi nintzenez, nahiko justuan ibili nintzen”*. Gauzak horrela, bere semebitxiak ate bat zabaldu zion.

## Familia aurkitu zuen Mallabian

Anaren semebitxiaren arreba bat Euskal Herrian bizi zen eta hona etortzeko aukera eskaini zion. *“Nire semebitxiaren arreba ia ez nuen ezagutzen, ulertzen ez nituen hizkuntzak egiten ziren herrialde ezezagun batera nindoan... baina gehiegi pentsatu barik etorri nintzen, ez nuelako galtzeko ezer”*. Autobusean etorri zen Errumaniatik, *“hiru eguneko bidaiari”*, eta bizimodu berria hasi zuen hemen. Bigarren egunean Mallabiko Mañe hotelean hasi zen beharrean eta esker ona izango die bizitza osoan. *“Ez zuten jendea hartzeko beharrik eta, hala ere, tokia egin zidaten”*. Familia aurkitu zuen han.

## Hizkuntzak ikasteko erraztasuna

Errumaniar telenobelak ikusteko ohitura zuenez, gaztelera ez zitzaion hain arrotza egin. *“la dena ulertzen nuen, baina ez nintzen berba egiteko gai. Pazientzia izan zuten nirekin eta asko eskertzen da”*.



Anak telenobelak ikusten ikasi zuen gaztelera. **Ekhi Belar**

Mañen egiten diren produktuak hainbat azokatan saltzen zizutenez, jendearekin harreman zuzena izan zuen hasieratik. *“Jendeak oso ondo hartu izan nau beti”*, eta euskera ikasteko ere balio izan dio. *“Gaztelera edo euskera ikasteko aukera eduki nuen eta aukera errazena hartu nuen, gaztelera, baina euskera ikasi behar dut, euskera jakiteak aukera gehiago eskaintzen dizkizulako”*. Gainera, errumaniarrek hizkuntzak nahiko erraz ikasten dituztela aipatzen du. *“Baina badaude alperrak ere, ez pentsa”*, dio barrezka.

## Errumaniako jakiak

Euskal Herrira etorri eta denbora gutxira mutil bat ezagutu zuen, eta pozik bizi da berarekin gaur egun. *“Kolonbiarra da, baina bere jaioterrian baino urte gehiago pasatu ditu Euskal Herrian. Pertsona zoragarria da”*. Euskal Herrian bizi den bikote kolonbiarerrumaniarra izanik, ohitura ezberdinak batu dituzte etxean. Hala ere, jateko orduan, Anak Errumaniako jakiak prestatzen ditu. Bere herrialdearekin lotuta mantentzeko modu bat da, ez baita

sarritan bueltatu eta bere etorkizuna hemen ikusten baitu. *“Nire ahizparengana joan naiz, baina arrotza sentitzen naiz Errumaniar. Gainera, herrialdearen egoera okerrera doala iruditzen zait”*.

**“Câinele moare de drum lung,  
iar prostul, de grija altuia”**

**Txakurra asko ibiltzeagatik hil daiteke, baina tontoa  
besteen gauzengatik arduratzeagatik hiltzen da**





## BIZILAGUNAK bazkarietan 53 eibartarrek hartu zuten parte



Jatorri ezberdineko eibartarrak elkar ezagutzeko aukera ematen duen egitasmoa da Bizilagunak, Gipuzkoako SOS Arrazakeriaren eskutik urtero antolatzen diren bazkari multikulturalak. Asmo horrekin familia (edo lagun-talde) batek beste bat bazkaltzera gonbidatzen du, euren artean ezagutu eta tradizio, ohitura eta kultura ezberdinen berri emateko. Aurreko domekan hala egin zuten Euskal Herriko toki askotan. Azken urteotan hainbat eibartar elkar ezagutzeko balio izan du Bizilagunak egitasmoak eta, Udaleko Inmigrazio Atalaren eta ...eta kitto! Euskara Elkartearen laguntzarekin, 53 lagun, 38 heldu eta 12 ume animatu dira aurtengo edizioan parte hartzen. Lau bazkari egin dira guztira, hiru Eibarren eta laugarren bat Mendaran). Horietako bi elkarte gastronomikoetan izan dira eta beste biak gonbidatzaileen etxeetan. Horrela, kuskus, oilasko erre, konafa eta tajin artean, jatorria Euskal Herrian, Espainian, Egipton, Brasilen, Kolonbian, Ghanan, Mexikon, Marokon, El Salvadorren, Venezuelan eta Dominikar Errepublikan jatorria duten eibartarrek elkar ezagutu ahal izan zuten eta, horrekin batera, harremanak estutu eta kultura ezberdinak gerturatu zituzten.





# + osasun gida

## Dentistak



**arat**  
Hortz Klinika

"Hortz osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51  
info@clinicadentalarat.com  
www.clinicadentalarat.com  
Toribio Etxebarria 4-1, EIBAR

UniverSalud  
Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa



R.P.S. 128/17

Esku onetan egotearen ziurtasuna.  
20.000tik gora paziente pozik.  
Etorri eta egin irribarre berriz ere.

**bista eder**  
clínica dental - hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82  
bista eder, 19  
www.bistaeder.es



**EIBAR** HORTZ KLINIKA  
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan  
San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com  
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

**Pedro Etxebarria Gisasola DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara  
**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17



**GASTESI**  
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI  
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02



**hortz-klinika**  
**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

**EGUNERO**

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



**IRAZABAL**  
clínica dental

**Iribarreetan adituak**  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.  
Tfnoa. 943 20 85 52  
www.clinicairazabal.com

**MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Inplanteak

**Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896**

10 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

**VITALDENT**  
*Konpromisoa*

San Juan, 7  
943 821 885 - 690 628 731  
www.vitaldent.com

## Dietetika/Nutrizioa



**NATUR HOUSE**

Ainara Iriondo Ansola  
GIZA ELIKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22  
Mugikorra: 677 551 850

## Errehabilitazioa



**CRF AMOSTEGI**  
ERREHABILITAZIOA

- \* Fisioterapia / Errekuiperaketa funtzionala
- \* Min-Unitatea
- \* Inkontinenzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

## Estetika klinika



**abontza**  
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

**MEDIKUNTZA ESTETIKOA**

**KIRURGIA ESTETIKOA**

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

## Fisioterapeutak



**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zkia.

- INDIBATERAPIA
- KIROL LESIOAK
- DRENAJE LINFATIKOAK
- POSTURA ZUZENKETEN TRATAMENDUAK

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**  
ARRAGUETA, 20  
T.F.: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

## Ginekologia

Dra. Laura Martinez  Dr. Alejandro Recas

**GINECOLOGÍA EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D  
dr.recas@gmail.com  
dra.martinezgallardo@gmail.com  
www.ginecologiaeibar.com



## Logopedak

**AHOTS-LAN**  
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.  
943 202691  
ahotslan@gmail.com

**Diagnostikoa eta tratamendua**

Degluzio atipikoa	TDAH
Disfonia	Berba arazoak
Ikaste-arazoak	TEA
	Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

(Ume eta helduendako)

**Ana Artamendi**

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ez. (EIBAR)  
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

## Okulistikak

**Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**  
www.oftalberdi.com

San Juan 11 - solairuartea  
943 20 19 82

**Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinika

· Miopia ebakuntzak  
(femtosegundoko laserrarekin)



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com

## Podologoak

**ELENA AIZPUN**  
PODOLOGOA



838200124  
kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria, 5 - 1. A  
943 12 14 93 / 696 555 208

**BIDEBARRIETA, 48  
EIBAR  
943 203050**


**ERDIKO KALE 54  
ARRASATE  
943 799746**

**PODOLOGOA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

**PODOLOGOA**

**Maidor Lopez Etxebarria**



Arragueta 2 Bis-B, Behea B  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

**PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO

**Iñaki Rivero Zabaleta**

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak

**AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOA  
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa  
www.centroamets.com

Coro Ortíz de Urbina - Master Praktika Klinikoa  
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua) - Master P.N.L.  
Tel. 675 70 68 07 - Trainer

**PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

**HAUR, NERABE ETA  
HELDUENTZAKO  
PSIKOTERAPIA**

943 20 22 66  
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea  
www.arratepsicoterapia.com

**Lorena Izaguirre Garcia**  
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ez. ....EIBAR  
Zuberua, 4 .....ZARAUTZ  
Tel. 943 831 618

**Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa**

**Oscar Mondragon Lili**  
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ  
Urkizu, 13 - behea  
Tel. 943206823 eta 686859023

## Psikoterapia

**FUB**  
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR

FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

**Medikuntza Psikiatrikoa**

Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)  
615 71 54 04

Bailen, 9 - 1. ez. (Bilbo)  
94 416 49 06

furizar1@yahoo.com





# Aiolako zebra-muskuilua ez zegoen bakarrik

Martxoaren 26an zebra-muskuilu heldua aurkitu zuten Aiolako urtegian. Berehala egin ziren analisisiek ez zuten gehiago aurkitu, baina udan neurri batean urtegia hustu eta ondorengoko emaitzek hasierako susmoak baieztatu dituzte. Muskuilu hura ez zegoen bakarrik, gehiago dira eta Aiolako etxe berriztat hartu dute. Horren ondorioz, jakina, arrantzatzeko debekuak indarrean jarraituko du sasoi baterako. Hala ere, URA Uraren Euskal Agentziak ez du muskuilua ibaietara heltzeko arriskurik ikusten eta, bertatik diotenez, *“kontsumitzen dugun uraren kalitatean ez du inolako eraginik”*.

**U**rrian amaitu dira uztailean hasitako espezie inbaditzaile hori aurkitzeko egin diren analisi sakonak eta *“urtegiaren hondoa dagoeneko kolonizatu dutela”* ikusi daiteke, *“karezko harkaitzei itsatsita dauden aleekin”*. 5 eta 10 milimetro artekoak dira gehienak, oraindik heldugabeak. URAkoek hiru lan mota egin dituzte: larben laginketa, ale helduen bilaketa eta, azkenik, urtegiako uraren azterketa genetikoak, larben hondakin txikiagoak aurkitzeko ahaleginean.

Hemendik aurrerako neurriak Gipuzkoako eta Bizkaiko Diputazioen artean hartuko dituzte, URArekin elkarlanean; horretarako, erabakiak hiruren artean hartzeko mahaia osatu dute. Dagoeneko, espezieak kolonizatu dizakeen materialetako %10-ean dagoela erakusten dute analisisiek. Iazko emaitzek muskuilurik ez zegoela adierazten zuten, baina denbora gutxian nahiko egin du aurrera kolonizazioak *“batez ere ur lasaietan azkarrago zabal-*



*Jangarriak diren muskuilekin konparatuta, zebra-muskuiluak askoz ere txikiagoak dira.*

*tzen delako biderkatze hori, urtegiako hondoaren zati handia hartzeraino”*.

Zebra-muskuilua dagoen espezie inbaditzaileenetakoa da eta, ura iluntzeaz gain, disolbatutako oxigenoa gutxitzen du, modu horretan beste espezie asko arriskuan jarriz, hodiak buxatzeaz edo ixteaz aparte. Gipuzkoako Diputazioko In-

gurugiro sailak arrantza debekatu zuen lehenengo alea aurkitu eta berehala. Hori xe izan zen hartutako lehen neurria, eta indarrean jarraituko du sasoi baterako, *“batez ere, arrantza-tresnetan muskuilularbak eraman ditzaketelako eta behar den moduan garbitu barik”*.

Udaberri hasieran URAk eta Ur Kontorzioak urtegiaren 700 metroko tartea aztertu zuten, bestelako alerik aurkitu gabe. Udan, bestalde, urtegiaren ahalmena %30-ean gutxitu zuten azterketak egiteko eta horko emaitza bestelakoa izan da. Teknikoek ez dira harritu, *“Aiolako lur-eremu egokia delako urak duen kare-karbonatoaren kantitatearengatik”*. Uraren kalitatean, baina, ez da inolako aldatetarik, *“ezarritako depurazio-zerbitzuek ez dute-lako larbak edo zikinkeriarik sartzen lagatzen”*.

Zebra-muskuilua txikia da benetan, heldutakoan ere hiru zentimetrotik ez da pasatzen eta ez da jatekoa; harrapakaririk ere ez du. Kaspio eta Aral itsasoetatik datorren espeziea 2001ean sartu zen estatuan, 2006an heldu zen lehenengo alea Euskadira Sobron eta Puentelarreina urtegietatik eta 2012an Bizkaian aurkitu zituzten lehenengo aleak Arratia eta Ibaizabal ibaietan. Iaz arte Euskal Herriko sei urtegitan eta zazpi ibaitan zegoen presente.

2016ko sanferminetan bost gizonek emakume gazte bat bortxatu zuten. Erantzun soziala masiboa izan zen, eta elkartasun aldarri gisa *Nik sinesten dizut* goiburua zabaldu zen. Izenburu horixe jarri dio Samara Velte (Zarautz, 1991) kasuari buruz egin duen liburuari. Zortzi urtez BERRIAN kazetari jardun ondoren, EHUn ikerlari lanetan dabil orain Velte. Azaroaren 26an Portalean izango dugu *Nik sinesten dizut. Bortxaketaren kultura eta sanferminetako kasua* liburua aurkezten, 18:00etatik aurrera. Ekitaldia Juan San Martin liburutegiak antolatu du, Indarkeria Matxisten Kontrako nazioarteko egunaren harira.

**- Zein da liburuaren mamia?**

Iruñeko bortxaketaren kasuaren haritik zabaldu ziren galderen inguruan begirada erradiografiko bat eskaini nahi dut. Ez da erasoari buruzko kronika bat, ez naiz sartzten detaile morbosotetan eta dexente kritikatzten ditut, gainera. Sanferminetako bortxaketa hori gertatu zenean indarkeriaren inguruan zein irakurketa zabaldu ziren azaltzen dut, eta hor nolabait bi narratibek egin zuten talka. Bat izango litzateke "Nik sinisten dizut" goiburua laburbiltzen duena. Hor ikuspegi feminista dago, indarkeria matxista gauza orokorra dela ulertzen duena. Hau da, indarkeria matxista gizartearen oinarrian dago, eta adierazpen mordoa dauzka, nahiz eta batzutan atentzioa kasu zehatzetara joaten zaigun. Eta bestetik, horrekin talka eginez, begirada patriarkala dago. Beti geldituko da sinesgarritasunaren galdera hor kateatuta: erasoak izan den ala ez, zer den benetan indarkeria...

**- Bi irakurketa horietatik "Nik sinesten dizut" aukeratu duzu liburuaren izenbururako...**

Egin ziren irakurketa guztietatik ideia ona iruditu zitzaidan mezu positibo bat erreskatatzea. Salto bat suposatzen du, sinesgarritasunaren inguruko zalantza gainditzeko delako. Sinesgarritasuna zalantzan jartzea erasoak sufritu duenari legitimitatea kentzeko erabiltzen den tresna da.

**- Zer elementu izan zituen 2016ko eraso hark hainbesteko oihartzuna lortzeko?**

Esanguratsua izan zena gizarteak eman zion esanahia izan zen, hau da, gizartearen erantzun masibo hori. Eta alde horretatik

## SAMARA VELTE

"Nik sinesten dizut" liburuaren egilea:

**"Sinesgarritasuna zalantzan jartzea erasoak sufritu duenari legitimitatea kentzeko erabiltzen den tresna da"**



uste dut izan zela salbuespenekoa. Erasoak, baita taldekoak ere, etengabe gertatzen dira. Zergatik kasu zehatz hau bihurtzen da bapatean sinbolo edo ikono konpartitua? Liburuan saiatzeko naiz horren azpian operatu duten mekanismoak aztertzen.

**- Iruñean gertatu izanak badu loturarik gizartearen izan zen erantzun horrekin?**

Ez horrenbeste sanferminetan gertatu zelako, baina bai Iruñean alde aurretik talde feministek izugarrizko lanketa eginga zeukatelako gai horren sentsibilizazioari dagokionez. Aspaldiko lanketa izan da eta horrek bere emaitzak dauzka, bereziki gizarteak arazo sozial bezala aitortzeko garaian. Gainera, 2016an gobernu aldaketarekin koinziditzen du, eta nolabait udal gobernuaren erabaki batzuk ere lagundu zuten: salaketak jartzeko leku gehiago jarriz, goizero salakaketa horiek komunikatuz...

**- Nola jokatu zuten hedabideek?**

Hasieratik oso kasu mediatikoa izan zen. Txupinazo egunean izan zen, milaka kamara zeuden. Komunikabide askok euren narratiban nahiko eraikita zeukaten sanferminak erasoaren gune direla, eraso asko gertatzen direla. Narratiba hori guz-

tiz faltsua da, espazio eta jai guztietan gertatzen dira erasoak. Horren guztiaren ondorioz dialogo sozial handi bat sortzen da: alde batetik, ikuspegi feminista batetik, hori salatzerako protesta egitera joan zirenak; eta, bestetik, erasoari irakurketa nahiko morbosoa eta patriarkala egin ziotenak, bereziki komunikabideek sustatu zutena.

**- Zerk ahalbidetzen du bost gizonek horrelako zerbait egitea? "Manada efektua" delakoa existitzen da?**

Ez dut uste orain gertatzen ari den gauza denik. Biolentzia matxista patriarkatuaren oinarritzeko tresna da, dominazioa erreproduzitzen duen mekanismo nagusia, eta historian zehar beti existitu da bortxaketa, baita taldeko ere. Gehiago esango nuke: eraso gehienek daukate osagarri kolektibo bat. Iruñeko kasuan, elementu klabea da inpunitatea sentitzen dutela. Ordura arte, nolabait, inguruneak eta gizarteak ulertarazi zituzten horrelako zerbait egin zezaketela. Eta hori da klabe bakarra. Erasotzailea ez da burua joan zaion pertsona bat. Ez dira munstro batzuk, edo gizartetik apartatutako gizakiak. Gizartearen erabat txertatutako jendea da.



Gaztaiña erre usaiña aspaldi zabaldu da bazterretan eta Gabonak ixa gaiñian dittugu, baiña bixen bittartian gure aisialdixa eta jateko kontuak uztartzeko arazorik ez dakagula begibistakua da. Izan be, hillebete honetan, San Andres jaixen atarixan antolatzen diran txapelketak eta bestelako jarduerak tartian, azken urtiotan janarixak aparteko protagonismua hartu dau gurian, askoren gozamenerako.

**E**guraldi eskasa, baiña giro paregabia euki eben zapatu goizian egin zan berakatz-zopa lehiaketan parte hartzera animau ziranak. Azaruian ixa egunero pasau dan moduan, eurixa egin eban aurreko as-teburuan be eta, horregaittik, Eibarko Sarek antolatutako Eibarko IV. Berakatz-zopa Lehiaketia udaletxeko arkupietan egin bihar izan zan. Halanda be, sekulako girua sortu zan eta parte-hartzaile guztiak gogotik jardun eben biharrian, euren guraso edota aittixta-amamen errezeri jarraituta, berakatz-zopa onena zeiniek preparau lehia bizixan. Eta, azkenian, hiru onenendako sarixak banatu zittuen: bikote irabazlia Aitor Kortaberria eta Agus Azpirik osatutakua izan zan: 150 euro eta txapela bana jaso zittuen. 100 euroko bigarren sarixa Itziar Azkarate eta Perbirendako izan zan; eta, hirugarren tokixan, Akraprak bikotia osatu eben Kike Aslarloa eta Birre Eizagirre geratu ziran. Hórrrek 50 euroko sarixa eskuratu eben.

#### Eskolarteko bakillaua eta goi maillako pintxuak

Hurrengo egunian, barriz, bakillaua izan zan ardatza, goizetik hasi eta eguerdira bittartian jokatu ziran bi txapelketetan. Udaltxeko patixuan jokatu zan 'Bacalaos Alkorta'



IV. Berakatz Zoparen irabazleak



## Berakatz-zopa, bakillau eta txistorra gustua daka azaruak



Eskolarteko Bakillau Txapelketaren irabazliak

Pintxo Lehiaketaren III. ediziñuan Gasteizko Waska jatetxiak eruan eban lehen sarixa, baita "Bakillau trataera onenaren sarixa" be, "Club Ranero" bakillauaren errezeran oiñarritutako pintxuarekin eta, horrekin batera, Eibarko Baratze Gourmetek be beste bi sari jaso zittuan.

Eibarko Udalak, "Bacalaos Alkorta" enpresak eta Mireia Alonso Perez gastronomuak antolatutako lehiaketan sukaldarixak jendieren aurrian preparau zittuen lehiaketarako pintxuak eta 2019an honako txapelketa honetan garaille izandako establezimenduak hartu eben parte: Hondarribiko "Gran Sol" (Gipuzkoako txapelduna), Ermuko "Kiska"

(Bizkaiko txapelduna), Gasteizko "Waska jatetxia" (Arabako txapelduna), "Baserri Berri" (Nafarroako txapelduna), "Getari" (Iparraldeko txapelduna), Irungo "Danako" (Euskal Herriko txapelduna), "Viento sur" (Elgoibarko txapelduna), "Giroa" (Ermuko txapelduna) eta "Baratze Gourmet" (Eibarko txapelduna). Epaimahai ofiziala, barriz, Ramon Roteta, Josu Mugerza (Elgoibarko Belaus-tegi jatetxea), Juan Carlos Ayerbe Goitia, Iñigo Kortabitarte (Durangoko Kobika jatetxea), Mitxel Suarez Suso (Borda Berri Araba jatetxea) eta Mireia Alonso sukaldarixak osatu eben. Lehiaketiak, bestalde, Solera Eibarresa, Meka-Hotel, Esther Galarza, Igar-tza, Comercial Zabala, Gamarrako Ostalaritza Eskola, Debabarrena Gazta eta Eibarko Oiñarrizko Lanbide Heziketa Institutua bezalakuen laguntasuna euki eban.

Domeka goizian egin zan Eskolarteko Bakillau Txapelketia, udaletxeko arkupietan. Bertan Eibar BHI, Aldatze eta La Salle Azitain ikastetxietako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasliak hartu eben parte eta, aurtengo ediziñuan, 17 bikote aritu ziran lehian. Goi-maillako sukaldarixak osatu eben epaimahaiak prestautako kazuela guztiak probau eta gero, txapela Eibar BHIko Alaitz Zabalak eta Sabrina El Ayadik jantzi eben. Bigarren sarixa, barriz, Aldatzeko



**Tabernarixen arteko Pintxo Lehiaketako epaimahaikuak**

Teresa Sagalak eta Naroa Garciak jaso eben. Eta sailkapen onena La Salle ikastetxiak lortu eban.

### Tabernarixen arteko pintxo lehiaketia

Eta, asteburua pasauta be, astebarruan jokatu da Eibarko Tabernarien Arteko "San Andres Saria" XVI. Pintxo Lehiaketia, martitzenian hasi eta atzora arte. Arrate Kultur Elkarteak, Eibar Merkataritza Gune Irekieren, Eibarko Udalaren eta herriko ostalarixen laguntasunarekin antolatutako lehiaketarako 20 tabernak emon dabe izena oin-guan: Anardi, Aterpe, Baisi, Baratze Gourmet, Birjiñape, Boulevard, Chido, Foxtter, Hirurok, Ipur sagardotegia, Jan eta Edan, Kontent, Koxkor, Kultu, O'hara, Oishi, Slow, Beleko, Meson La Extremeña eta Trinkete. Urtero bezala, izena emon daben taberna bakotxak lehiaketarako bereziki sortu daben pintxua eskindu dau hiru egunetan eta, banan-banan danak probatzen jardun daben epaimahaikidiak laster emongo dabe eza-gutzeraz euren erabagixa. Horrekin batera, bezeruak emondako botuak zenbatu eta gero, puntuaziño gehixen lortzen dabenak publikuaren sarixa jasoko dau. Bestalde, botua emon daben guztien artian opariren bat zozketatuko dabe antolatzailliak.

### Txistorra Eguna bixar Untzagan

Eta aurreko egunetan egin diran guztiekin baten bat oindiok asetu barik geratu ba-



**Helduen Bakillau Txapelketia domekan jokatuko da**



**Bixar XVII. Txistorra Eguna ospatuko da**

da ez larrittu, sukaldaritzari eta janarixari lotutako ekitaldixak asteburu honetan segiduko dabe eta. Bixar XVII. Txistorra Eguna ospatuko da, goizetik gabera bittartian, Eibarko Txirriindularien Elkartearen eskutik. Aurtengo omenduak bizi guztia Eibarko Antzerki Jardunaldixak antolatzen emon daben Juan Ortega eta 50 urte baiño gehixago Eibar foball taldiarekin daroiazan Angel Zapico izango dira. Hórrek bixokin batera, Txirriindularien Elkarteari urtietan laguntzen dabilen Industrias Goritz enpresa be omenduko

dabe. Ekitaldixa 11:00etan hasiko da, Elgoibarko dultzaineruak lagunduta omenduko zabalduko daben txotxarekin batera. Orduan hasiko dira txistorra pintxuak eta edarixak saltzen Untzagako karpan, 15:00ak arte. Eta, bazkaltzeko atsedendaldixa amaittu eta jarraixan, arratsaldeko 18:30etatik aurrera ekingo detse atzera be pintxo eta edarixen salmentari, 21:00ak arte. Urtero legez, egunian zihar rifak salduko dittu eta, horrekin batera, nahi dabenak Eibarko Txirriindularien Elkartearen kamiseta, txapelak eta txapak erosteko aukeria eukiko dau. Zozketia jaixaren amaieran, Untzagan bertan egingo dabe. Danera 4.000 bat euro banatuko dittue saritan eta jende guztia karpaz jua eta zoezer hartzera animau nahi dabe antolatzailliak.

### Helduen Bakillau Txapelketia domekan

Eta domekan atzera be bakillaua izango da protagonista, 11:00etatik aurrera Untzagako karpan jokatuko dan San Andres XXVII. Bakillau Txapelketari esker. Helduendako txapelketan Eibarko alkartiak eta kuadrillak hartuko dabe parte, bikoteka, eta betiko moduan parte hartzera animatzen diranen artian lehia bizixa egongo dala aurreikusten dabe antolatzailliak. Gaiñera, euren berbetan, "azken urtietan hazi egin da gaztien parte-hartzia". Lehen, bigarren eta hirugarren sailkatuak 300, 200 eta 100 euro eskuratuko dittue, hurrenez hurren.

**dica**® **eibar**

URRATEGI INTERIORISMO

www.urrategiinteriorismo.com

Arragueta 27  
Telf: 943 857 244

S  
U  
K  
A  
L  
D  
E  
A  
K  
  
D  
I  
S  
E  
I  
N  
U  
A





*eva alberdi*

Informazioan alfabetatzea ulertzeko gaitasuna eta trebetasun tresnak izatea da, informazio hori aurkitu, ebaluatu eta eraginkortasunez erabiltzen jakitea

## “Infoxikazioaren” aurrean, trebetasunak

Gizakiok informazioa jasotzen ari gara etengabe. Kontua da informazio horren guztiaren artean balio diguna aukeratzen jakitea eta informazio hori ezagutza bihurtzea, zaila egiten zaiguna askotan.

Udal Liburutegiak, ebidentzia horren aurrean, eta informazio eta ezagutzaren sarbide izan behar duela kontziente izanda, programa batzuk jarriko ditu martxan ahal duen heinean erabiltzailea orientatzen lagungarri izateko. Programa hauek erabiltzaileen informazio-alfabetatzea (ALFIN) lantzea dute ardatz.

American Library Associationen hitzetan, *“Informazioan alfabetatzea ulertzeko gaitasuna eta trebetasun tresnak izatea da, zeintzuei esker gizabanakoak gai diren jakiteko noiz behar duten informazioa eta informazio hori aurkitu, ebaluatu eta eraginkortasunez erabiltzen”*.

Formakuntza programa hauek adinaren arabera blokeetan antolatuta daude, partaideek ezagutza bereganatzen joateko eraren hezkuntza mailaren arabera. Gure helburua da saioetan hartutako ezagutza metagarria izatea.

Beraz, **eskolekin** lotutako saioak antolatuko dira adin guztietako ikasleentzat:

- **Haur hezkuntza:** “Liburutegian kontu-kontari”
- **Lehen hezkuntza:** “Irakurtzen badakit”, “Egun bat liburuzain” eta “Liburu artean” (azken hori gure urteko programazioan ezarrita hainbat urtetan)
- **DBH eta Batxilergoa:** “Informazioa helburu”

Erabiltzaile helduak trebatzeko programa bat ere badugu, **talde edo elkarteei** eskainiko zaiena.

Tailerraren edukia taldearen interesetara egokituko da, eta parte-hartzaileek Liburutegian dauden zerbitzu eta baliabideak ezagutuko dituzte, katalogoa erabiltzen ikasiko dute eta informazio iturri desberdinez eta eLiburutegiaren funtzionamendu orokorraz jabetuko dira.

Gure webgunean dago informazio osagarria. Eskaerak egiteko, bertan dagoen inprimakia bete eta gure posta elektronikora bidaltzea nahikoa izango da lehenengo harremana egiteko eta bisitaren egutegia adosteko.

*mabel illarramendi*

Egunari mugikorrik gabe nola heldu asmatu ezinda nenbilela, bake, liberazio eta askatasun sentazioa sentitu dut, aspaldi ez bezala

## Lagunmina etxean ahaztuta

Gaur goizean lo hartu dut. Eguna horrela hasteak berarekin dakarren zurrunbilo sentazioari ahal izan dudana moduan aurre egin eta ziztu bizian eta erdixka egin ditut egunerokoak: dutxa hartu, gosaldia, prestatu, eta kotxerantz abiatu naiz. *“Apu bat berandu nabil, baina iritsiko naiz lanera”*, esan diot neure buruari egoera kontrolatu nahian. Gidatzen hasi, musika jarri eta orduantxe lasaitu naiz, Izaroren *“La felicidad”* abestiaren doinuetan murgilduta. Gutxi irauin dit lasaitasun horrek, ordea. Bat-batean izuak hartu nau. Izerditan eta dardarka, alde guztietara begira hasi naiz. Eskuak poltsikoetan sartu eta ezer ez; poltsan begiratu eta han ere ez; ez dut nire gorputzetik aparteko dardararik sentitu, eta horrek arnasa estutu dit. Begiradarekin kotxea goitik behera miatu eta

arrastorik ez. Ni, gero eta urduriago; gero eta blokeatuago. Eguna alperrik galduta ikusi dut minutu gutxi batzuetan, neure burua bezala. Ez naiz ezertarako gauza sentitu; ez dut egunari aurre egiteko modurik ikusi. Nireak egin du! Ezingo dut eguneko irudirik partekatu; ezta lagunekin txutxu-mutxuka jardun ere; ez dut etxekoekin harremanetan jartzeko modurik izango, mutil-lagunarekin ere ez. Nola begiratuko dut ze eguraldi egingo duen zapatuan, plan bat edo beste egiteko? Nola jakingo dut Amazoneko paketea non dabilen? Ez dakit nola, baina iritsi naiz lantokira. Aparkatu eta kotxetik irten naiz, etsita. Arnasa sakon hartu eta, egunari mugikorrik gabe nola heldu asmatu ezinda nenbilela, bake, liberazio eta askatasun sentazioa sentitu dut, aspaldi ez bezala.



**gazteON**



**Ludopatia jokoarekiko zaletasun kontrolaezina da, mendekotasuna sortzen duena. Orain urte batzuk, gutxi ziren mendekotasun horrek harrapatzen zituenak, baina gaur egungo datuak beldurgarriak dira; izan ere, gaixotasunak gero eta jende gehiago hartzen du mendean, eta are larriagoa dena, gero eta gazte gehiago.**

XXI. mendeko heroina ere deitu izan zaio ludopatiari. Termino latza da, baina Munduko Osasun Erakundeak, MOEk, berriki argitaratutako zifrei erreparatuz gero, laztasuna datuei eurei darie: jokoarekin, erosketekin eta internetekin sortutako mendekotasunak 4 pertsonatik bati eragiten dio. Gainera, substantziarik gabeko adikzio hauek urtetik urtera areagotzen ari dira; 2018an egindako ikerketa baten arabera, igoera hori % 52koa izan zen. Gurekin harremanetan jarri diren elkarteetatik (Eibarko Egun bat, Donostiako Gizakia Helburua eta Barakaldoko Ekintza Aluviz) azpimarratu dute azken urteotan hazkundera are nabarmenagoa izan dela gazteen artean, batik bat on line bidezko jokoetan eta kirol-apustuetan.

## **Jokoa ez da errenta**



# Zer diote mahai-inguruko kideek?



“Beti hitz egiten da prebentzioaz, baina inoiz ez promozioaz, sustapenaz, eta oso garrantzitsua da.”

**Olatz Arriaga**

*Psikologian graduatua.*



“Nik zulo eta infernu horretatik irtetea lortu badut, edonork lortu dezake.”

**Ludopata anonimoa**

*Egun Bat elkarteko ludopata anonimoa.*



“Ez pentsatu makinak baino azkarragoak garenik, eta bertan dirua erraz lortu daitekeenik. Egun batean, bitan... irabazi dezakezu, baina etorkizunera begira, beti aterako zara galtzen.”

**Galder Govillar**

*Jokoan aritutakoa, egun Ekintza Aluviz elkarteko langilea.*



“On line bidez jokatzeko dutenek mugikorra erabiltzeari egin behar diote uko, eta badakigu gaur egun zein garrantzitsua den denontzat sakelakoa.”

**Marian Urrestarazu**

*Gizarte hezitzailea, Gizakia Helburuko Langilea.*

**A**razoaren muinera jota, jokoaren mendean erortzeko arrazoiak hainbat eta askotarikoak izan daitezke. Olatz Arriaga psikologoak eskuragarritasuna aipatu digu. Gazteen artean jokatzeko eta apustuak egiteko joera on line bidezkoa izanda, argi dago mugikorra edukita “etsaia” soinean daromatela une oro. Abstinentzia egoerak sortzeko orduan ere horrek asko zailtzen du errehabilitazio-prozesua. Adibide baten bidez honela azaltzen digu Gizakia Helburuko Marian Urrestarazuk:

**“Alkoholikoen kasuan, edateari utzi behar diotenean, abstinentzia tabernetara joateari uzten hasten da; on line bidez jokatzeko dutenek, ordea, mugikorra erabiltzeari egin behar diote uko, eta badakigu gaur egun zein garrantzitsua den denontzat sakelakoa. Beraz, askoz zailagoa da”.**

Horrez gain, on line jokatzeko metalikorik erabiltzen ez denez, alegia, dirua fisikoki ikusten ez denez, are errazagoa da xahutzea, ez baita dirua “gastatzen” ikusten, txartelaren zenbakiak baino ez dira-eta behar.

Ludopatia gertutik ezagutzen duten Galderrek eta Mikelek (bigarrenaren kasuan ez da benetako izena, nahiago izan baitu anonimotasuna gorde) argi utzi nahi dute gaixotasuna dela, ez bizioa, eta aldarrikapen hori egin nahi dute gizartean. Izan ere, zenbaitetan bizioso sentiarazten dituzte ingurukoek, eta horrek ez du sendatze-prozesuan laguntzen; aitzitik, baztertzeko arriskua handitu egiten du, eta jokoaren sarean erortzen diren gehienak autoestimua baxuko pertsonak direla aintzat hartzen badugu, egoera guztiz korapilatzen da.

Zurrumbilatik irteteko gomendio edo urratsez galdetuz gero, bi ludopaten ustetan laguntza eskatzea da lehen pausua, nahiz eta zaila dela onartzen duten. Ondoren, jokozaleak arazo bat duela onartu behar du eta sendatzeko prest agertu: talde-terapiak, psikologoak, etxekoak eta ingurukoak babesa... Galderrek azpimarratzen du psikologoaren laguntza funtsezkoa dela pertsona gisa erreku-peratzeko, komunikazioa izateko eta autoestimua igotzeko. Izan ere, bere hitzetan:

**“Hona ekarri gaituena (gaixotasun egoerara) komunikazio falta izan da, hasieratik laguntza eskatu ez izana, beraz, profesional batekin arazoak azalaraztea oso garrantzitsua da”.**

Marianen ustetan ere, 29 urteko eskarmentuan oinarritutako ustea, lan sakona egin behar da pertsona bakoitzarekin, ludopatia sintoma bat baino ez baita. Baina sakonera iritsi beharra ikusten du berak ezinbestean, eta, horretarako gaixoa egoera horretara eraman duten arrazoiak aztertu, zailtasunak non dituen ikusi, gatazkak nola bideratzen dituen antzeman, baita jokoan zer aurkitu nahi duen eta zeren bila doan ere. Metafora baten bidez azaltzen digu aipatutakoa:

**“Bizitza bidaia bat da eta gu txikitatik ari gara gure maleta betetzen. Jokoarekiko mendekotasuna duenaren maleta zabaldu eta errebisatu beharra dago; beste la esanda, hustu egin behar da ekipajea, berregin eta ondo osatu, bidaiatzen jarraitzeko. Errebisio horretan familiaren presentzia ere funtsezkoa da”**

Era berean, bai ludopatek bai adituek ingurukoak gaixoaren gainean

egon beharraren garrantzia aipatzen dute, kontrola, alegia. Gazteen artean kontrol hori nekezagoa dela uste dute; izan ere nerabezaroan autonomia guztiz beharrezkoa dute, eta edozertarako norbaiten beharra ikusten dutenean (ezin dute ez dirurik, ez txartelik eraman, mugikorrik ere ez...), askatasun eza izaten dute nagusi, eta horrek oso deseroso sentiarazten ditu. Hori horrela, gazteei gehiago kostatzen omen zaie “infernutik ateratzea”. Nolanahi ere, ludopatak beti ludopata izaten jarraituko duelako ideia ere zabaldu nahi dute, mendekotasuna sendatu barik eten edo gelditu egiten baita, baina ez betiko desagertu. Mikelen hitz gogor hauek ondo islatzen dute esandakoa:

**“Bizitza guztian izango naiz ludopata”.**

Ludopatia kasu bakoitzaren azpian errealitate bat ezkututzen dela esan beharrik ez dago, baina iritsi garen

egoerara iritsita, gizartearen erantzukizunaz ere hitz egin behar da: gero eta makina txanponjale gehiago eta eskurago, apustu-etxeak non-nahi, diruaren garrantzia etengabe gogoratzen digun kontsumismoa, jokoak sustatzeko publizitatea komunikabideetan... Egoeraren larria ikusita, hainbat hiritan, Bartzelona kasu, debekuak jartzen hasita daude dagokeneko: ez da baimenik emango apustu-etxe gehiago zabaltzeko. Hala ere, neurri egokia bada ere, ez da nahikoa. Ildo horretatik, prebentzioaren garrantziaz mintzatzen da Olatz, baita gaia txiki-txikitatik lantzearen beharraz ere.

Bukatzeko, izenburuko esaerarekin bat datorren mezua helarazi nahi izan diete irakurleei jokoaren mende hainbat urtez “bizi” izan diren biek: jokoaren bidez, ez dago irabazterik; galdu baino ez da egiten, zentzu guztietan. Hori bai, eurak “putzutik irteteko” gai izan badira, edozein irten daitekeela diote aho batez.

## EZ IZAN LAGUNTZA ESKATZEKO BELDURRIK

**EKINTZA ALUVIZ**  
Ludopatentzako laguntza



Helbidea: 224-San Juan, 26 Bajo 48901 - Barakaldo  
Telefona: 944388665  
Orduetgia: 17.00 - 20.00  
Email-a: ekintza.aluviz@telefonica.net  
Webgunea: www.ekintzaaluviz.com

**EGUN BAT**  
Jugadores Anónimos y Familiares de Euskadi



Helbidea: San Andres Elizako etxabeak, Eibar  
Telefona: 699377520  
Orduetgia: asteartetan 18.30 - zapatuetan 17.30

**IZAN FUNDAZIOA**  
Gizaki Helburua / Proyecto Hombre



Helbidea: Marieluts 43, Hernani  
Telefona: 943552602 - 682793081  
Email-a: acogidahernani@izan.org  
Webgunea: izan.org



# Zein mezu bidali du kide bakoitzak?

## Jokoa zorizkoa da, ezin da irabazi.

Jokoa zorizkoa da, ez dago horren kontra irabazterik, epe luzera beti galduko da. Laguntza eskatzea ezinbestekoa da, hori baita hortik ateratzeko irtenbidea.

*Olatz Arriaga*

## Gaixotasuna da, ez adikzioa

Hasiera batean atekak itxi egin behar dira gero libre izan ahal izateko. Hau da, ez adikzio bat, hau gaixotasun bat da.

*Anonimoa*

## Komunikazioa funtsezkoa da

Etxean gaiari buruz hitz egin behar da, zalantzak galdetu eta argitu. Ez da beldurrik izan behar horrelako gaiez mintzatzeko, eta beharrezkoa da.

*Marian Urrestarazu*

## Badaude laguntza emateko elkarteak

Oso garrantzitsua da familia alertan egotea. Norbaitek arazo hau izan dezakeelako susmoa badago, jakin badaudela informazioa eskaini eta laguntzeko prest dauden bideak, elkarteak...

*Galder Govillar*

## Podcast-a entzun nahi?

Sartu zaitez **etakitto.eus** web orrian, eta bertan aurkituko duzu mahai-inguru honen grabazioa.



Jokoa ez da errenta

Mahai-inguru honen **podcast** edo audio-grabazioa **Spotify**n eta **Ivoox**en entzun eta deskargatu daiteke. Plataforma horietan gazteON izenarekin aurkituko gaituzu. Oso modu errazean!

Podcast-a ingelesetik datorren hitza da (IPOD eta BROADCAST). Mugikor eta ordenagailuetatik entzun daitekeen multimedia fitxategi honek indar handia hartu du azken bolada honetan. Hori ikusita, gazteoneko atala ezin da atzean geratu, eta grabazio hauekin martxan jarri da.



300 jokalarik baino gehiago ditu Eibar Eskubaloiak denboraldi honetan, 19 taldetan banatuta: hiru seniorretan, jubeniletan bi, lau kadeteetan, bost infantiletan, hiru alebinetan eta benjaminetan beste bi.

## Denetarik izan zuen Eibar Eskubaloi taldeek jokaturako azken jardunaldiak

1. Nazional mailan jokatzeko duen Somosek 27-21 galdu zuen Trapagaran liderraren kantuan hasieratik bizkaitarrek agindu zuten norgehiagokan; hala ere, Fernandez mutilek euren onena ematen ahalegindu ziren eta ez zioten aurpegia galdu partiduari. Senior mailako beste bi taldeek emaitza desberdinak izan zituzten: emakumezkoen Mecalbek 21-34 gailendu zen Txingudi Egaindaren kantuan eta gizonezkoen Haritzak denboraldiko lehen porrota jaso zuen

Zumaian Pulporen pistan (30-27). Jubenil mailako Eibarko taldeek garaipen argiak lortu zituzten: Mecalbek aurkariaren golak biderkatuz (46-23) eta Teknikerrek bi puntu garrantzitsu eskuratu zuten Hernanin (25-33). Kadeteetan saikapenetako buruan jarraitzen dute Eibar Eskubaloiko ordezkariak: emakumezkoen Mecalbe gupidarik gabe nagusitu zitzaion Aiarari (31-11) eta gizonezkoen Teknikerrek eta Komatek erraz irabazi zuten (35-18 eta 18-32, hurrenez hurren).

## Urbateko waterpolistak garaipen bidetik

Azken jardunaldian Urbateko senior mailako bi taldeek jokatu zuten eta oraingoan eibartarrek ez zuten plenorik eskuratu. Kasu bietan markagailuak ez zuten erakutsi benetan igerilekuan egon zen parekotasuna: horrela, gizonezkoen taldeak 14-11 irabazi zion Waterpolo Donosti indartsuari, baina hiriburukoek estu hartu zituzten eibartarrak eta hirugarren zatia 9na amaitu zen; emakumezkoen talde berriak oraingoan amore eman zuten (4-11) Leioa liderraren aurrean, baina partidua emaitzak erakusten duen baino askoz borrokatuagoa izan zen. Asteburu honetan Santoñan jokaturako dute, eta gizonezkoen taldeak Askartzari egingo dio aurre.



## Avia Eibar saskibaloiak alde handiz galdu zuen liderraren kantuan

Gure herriko saskibaloi klubeko lehen taldeak aspaldiko porrotik mingarriena jaso zuen aurreko asteburuan Take Coach liderraren pistan 39 puntugatik galdu eta gero. Urteak dira hainbeste punturen aldearekin ez zutela galtzen Eibarkoek, "baina oraingoan baja-kopuru handiarekin joan ginen eta hori igarri zen". Batez ere, hir

ruko saskiratzeek handitu zuten talde biko alde. Harrobiari begira, junior mailako nesken taldeak 78-21 galdu zuen Añorgan eta kadete mailako mutilek 64-29 irabazi zion Easo Andatza saikapenetako azkenari eta goiko postuetara egin du jauzi. Azken talde horretan, gainera, infantil mailatik datozen bi jokalarik debutatu zuten.



## ASTEBURUKO AGENDA

### FOBALLA

#### 1. Maila

EIBAR - Alaves (etzi, 16:00)

#### Emakumezkoen 2. Maila

EIBAR - Madrid B (etzi, 12:30)

#### 3. Maila

Somorostro - VITORIA (bihar, 18:00)

#### Emakumezkoen Euskal Liga

Aurrera Vitoria B - EIBAR B (etzi, 10:30)

#### Ohorezko Erregional Maila

Zarautz - EIBAR URKO (bihar, 15:45)

#### 1. Erregionala

URKI - Aretxabaleta (bihar, 15:45)

Zestoa - EIBARTARRAK (bihar, 15:45)

#### JUBENILAK

#### Ohorezko Maila Nazionala

Alaves - EIBAR (bihar, 12:45)

#### Euskal Liga

EIBAR B - Olarizu (bihar, 18:00)

#### KADETEAK

#### Euskal Liga

EIBAR - Kostkas (gaur, 19:45)

### FOBALL-ZALETUA

Bar Areto - Chic (bihar, 09:00)

Feredu - Ipur Sagardotegia (bihar, 09:00)

Durango - Slow XOK (bihar, 10:30)

JMR Erreformak - La Jara (bihar, 12:00)

Azkena Adahi - Bar Txoko (etzi, 09:00)

Los Paisanos - Garaj. Garcia (etzi, 10:30)

### ESKUBALOIA

#### 1. Nazional Maila

SOMOS - Romo (bihar, 18:30)

#### Emakumezkoen Gipuzkoako 1. Maila

MECALBE - Egia Petritegi (etzi, 11:45)

#### Gipuzkoako 1. Maila

HARITZA - Laubide Legazpi (bihar, 16:30)

### ERRUGBIA

#### Ohorezko B Maila

Gaztedi - AVIA (etzi, 11:30)

#### Emakumezkoen Euskal Liga

AVIA - La Unica (etzi, 12:00)

### SASKIBALOIA

#### Gipuzkoako 3. Maila

AVIA - Mekalki Aloña Mendi (bihar, 18:15)

### WATERPOLOA

#### Euskal Herriko 1. Maila

Claret B - URBAT (etzi, 13:30)

#### Emakumezkoen Euskal Herriko 1. Maila

Santoña - URBAT (bihar, 19:15)

### AGENDA OSOA GURE WEB ORRIAN



## Emakumezkoen errugbi taldea hirugarren izan zen Toledoko I. Seven Topaketan

Cristina Guntinek prestatzen dituen jokalariek maila bikaina eman zuten Toledoko Yuncos herrian jokaturako torneo berrian eta, lehiaketak aurrera jo ahala, gero eta hobeto moldatu ziren. Jokaturako lehenengo partidua izan zen galdu zuten bakarra, Burgoseko Pinguinasen aurrean; bigarrenean gero txapela jantziko zuten Portugalgo Tonladari irabazi zioten, lehenengoko partiduan izandako arazoak konponduta; eta hirugarrenean Va-

lentiari irabazi zioten, multzoko bigarren postuan geratzeko. Horrek hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partidurako txartela eskaini zien, eta hor ere garaile izan ziren eibartarrak, Industriales taldeari irabazita.

Euskal Ligako emakumezkoen taldeak, bestalde, seigarren jardunaldian Landarbasori irabazi zion 33-5 domekan Unben, lehen zatia 21-0 amaitu eta gero. Gizonezkoen bigarren taldeak, berriz, Zornotzako Urgozo



taldea hartu zuen Unben bigarren itzuliko lehenengo partiduan. Avia Eibar B ondo egokitu zen euria, hotza eta lokatze- eta, batez ere bigarren zatian egindako lan onari esker, azke-

nean 14-10 irabazi zien bizkaitarrei. Ander Fernandezek gauzatutako zigorrei esker eibartarrek lehenengo zatian jasotako bi entseguetako emaitza iraultzea lortu zuten.

## Elurra lagun Artatzatik Lizarragarako ibilbidea egin zuten mendizaleek

22 laguneko taldeak osatu zuen Artzaintza Naturbidearen zazpigarren etapa, "artadi eta harizti, pago izugarriak, paisaia idilikoa, behetik gorako aldatsa eramangarria gertatuz" egindako txangoan. Nafarroako Amezkoa haraneko Artatzatik Urbasako goi ordokirantz jo eta gero, Dulantzeko gailurrean gogotik ari zuten elurra, "haize gogorra lagun; geodesikoa eta buzoi polita zeuden

1.42 metrotan". Ondoren, Lizarragako bentan beherantz jo zuten Lizarragako mendatera doan galtzadatik: "Han txirrista, lera eta abarrek haurren poza asetzen zuten". 21 kilometro egin zuten guztira Deporrek mendizaleek, gehienak elurretan, ibilia neketsuago eginik. Eskerrak Lizarragako bentan egindako bazkariak eta tertuliak amaiera bikaina eman zion irteerari.



Deporrek antolatutako ibilaldian kolore zuria nagusitu zen.

## Deportiboko atletek Irunen hasi zuten kros denboraldia

Aurreko domekan Irungo krosarekin Eibarko Klub Deportiboko atletak denboraldiari ekin zioten eta Kalaka Gonzalezek lortu zuen posturik onena, 18 urtetik beherakoenen artean hirugarren sailkatuta. Maila absolutoan eibartar bi izan ziren lehenengo hamarren artean: Pello Osoro, bosgarren postuan, eta Julen Teran, zazpigarrenean; Txomin Osoro 17.a izan zen eta Markel Gutierrezek 28. amaitu zuen. 20 urtetik beherakoenen artean, Eneko Osorok zortzigarren amaitu zuen, Jone Acuña 16. postuan sailkatu zen 18 urtetik beherakoen artean eta, beteranoetan, Roberto Gartzia 13. izan zen eta Markos Untzetabarrenetxea 17. Azkenik, infantiletan Aiora Unzeta izan zen Eibarko ordezkari onena (20. postua) eta alebiretan Irati Ariznabarreta (16.).



## "Moskuko urre guztiarekin" bueltatu ziren Kalamuakoak

Zumarragako Beloki frontoian domekan jokaturako urteroko torneoan maila desberdinetako 150 bat judokek hartu zuten parte. Azpeitia, Zumaia, Legazpi, Legutio, Ormaiztegi, Arrasate eta Zumarragako infantil mailako neska-mutilek lehiatu zuten Eibarkoekin eta Kalamuako ordezkariak nagusi izan ziren hainbat lehiaketatan: "Gure ordezkariak hain ondo borrokatu zuten Moskuko urre guztiarekin bueltatu girela etxera", diote Eibarko judo klubeko arduradunek.



## Eibar FT-k Alaves hartuko du etzi

Etzi derbia jokatuko da Ipu-ruan, sailkapenean berdindu-ta dauden Alaves eta Eibar-  
ren artean. Arratsaldeko 16:00etan hasiko den partidu horretarako Mendilibarrek plan-tilla osoa izango du bere agin-duetara, min hartutakoek erre-kuperatu direlako. Kopan, bes-talde, Eibarko taldeak Logroñon izango du lehenengo kanpora-keta, partidu bakarrera, 3. mai-lako SD Logroñesen aurka, abenduaren erdialdean jokatuko den partiduan. 1. Mailan jokatzen duen talde nagusiaz aparte, Eibar FT-ko bestelako taldeek denboraldi bikaina dihardute egiten: emakumez-

koen 2. Mailan jokatzen duen taldea laugarren da sailkapene-an eta goi postuetako borrokan jarraitzen du, Osasuna liderra-rengandik lau puntura; 3. Mailan jokatzen duen Vitoria filialak lehenengo postura iritsi da az-ken jardunaldietako emaitzei esker eta hor Portugalete eta Sestao ditu lagun, puntu berdi-nekin; Euskal Ligako emaku-mezkoen bigarren taldea biga-rren da sailkapenean, Real Socie-dad taldearen atzetik; eta Erregional Ohorezko mailako Eibar Urkok abiadura hartu du azken jardunaldietan eta, dago-eneko, bigarren dugu sailkape-nean, Anaitasuna liderranga-



Eibarrek Alavesi azken unean irabazi zion aurreko denboraldian.

tik puntu bira. Harrobiko talde nagusienei dagokienez, jubeni-letako lehen taldea hirugarren dago Ohorezko maila naziona-leko bere multzoan eta Euskal

Ligan jokatzen duen bigarren taldea laugarren postuan aurki-tzen da, kadete mailako Euskal Ligan jokatzen duen beste ha-maikakoa bezala.

## Astelenak binakako txapelketaren sei jaialdi hartuko ditu jarraian



Asteburu honetan hasiko den profesional mailako binakako txapel-keta nagusiaren lehenengo itzuliko zazpi jardunalditik sei hartuko ditu Katedralak. Justu asteburu honetakoa kenduta, Sanandresetan hasi eta hurrengo bost asteburuetan partiduak izango dira Astelenan, pilotaza-leen gozamenerako. San Andres egunean, zapatuan, Iribarria/Rezusta eta Ezkurdia/Martija bikoteek neurtuko dituzte indarrak; abenduaren 8an, domekan, Iribarria/Rezusta eta Altuna/Galartzak; abenduaren 15ean, domekan, Jaka/Zabaleta eta Laso/Albisuk; abenduaren 22an, do-meketan, Altuna/Galartza eta Laso/Albisuk; urtarrilaren 1ean, eguaztene-an, Altuna/Galartza eta Artola/Imazek; eta urtarrilaren 6an, astelehene-an, zazpigarren jardunaldiko Olaizola/Urrutikoetxea eta Ezkurdia/Marti-jaren norgehiagoka.

## Jon Astigarraga eibartarrak irabazi zuen Elgoibarko San Pedro igoera

Lasterketako azken zatian eibartarrak egindako erasoak eman zion ga-raipena, ordura arte berarekin zihoazen Jon Ibarluzea eta Ibai Konde atzean laga ondoren. 15 minutu eta 18 segundo behar izan zituen Jon Astigarragak San Pedrorra heltzeko eta lau segundora helmugaratu zen Ibarluzea, biga-rrena. Igoerak parte-hartzaile gutxiago izan zituen aurten bere ohiko data al-datu ondoren: aurreko edizioetan urriaren 12an jokatu izan den lasterketa oraingoan hilabete bat atzeratu da "baimenekin izandako arazoengatik".



## Arima Galduak-ekoak jugger klaseak ematen hasi dira ikastetxeetan



Txapelketa denboraldia ikuspuntuan, gure herriko jugger taldeko joka-lariak klaseak ematen hasi dira ikastetxeetan: "Soraluzeko ikastetxeko 3. eta 4. mailakoekin hasi gara eta Eibarko Institututik ere deitu digute". Arima Galduak, bestalde, abenduaren 8an hasiko du Internucleos Liga Zaragozan eta hurrengo jardunaldiak otsailaren 16an eta maiatzaren 17an jokatuko di-ra. Ondoren Zaragozako torneo nazionala izango dute zain (apirilaren 3tik 5era) eta Gasteizeko Spring Cup, "apirilean edo maiatzean". Bestalde, abuz-tuaren 6tik 10era munduko jugger txapelketa jokatuko da Berlinen.





**“Musikak ilusioa eta poza ematen dit, suspertu egiten nau”**

**MIKEL URKOLA**  
 (musikaria)

Orain dela bost urte azken diskoa kaleratu ondoren, beste bat grabatu du Mikel Urkolak. ‘Los caminos del amor’ izenburua du eibartarraren lanak eta maitasuna da diskoaren ardatza. Bederatzi abestitan hain eibartarrak diren doinu latinoamerikarrak landu ditu Urkolak eta LegarRec estudioan egin du grabazioa Walter Tuzzeoren laguntzarekin.

**- ‘Los caminos del amor’ izeneko diskoa kaleratu duzu. Nolako bideak ditu maitasunak?**

Oso bide ezberdinak ditu. Batzuk oso politak dira, beste batzuk gaizki irteten dira, eta gauza politak eta txarrak nahasten dira hainbat bidetan. Maitasunean denarik dago eta diskoan bide guztiak sartzen saiatu naiz. Mai-

tasunak eta desamodioak daude, baina maitasunaren inguruko abestiak dira diskoko pieza guztiak. Hau izan da beti nire estiloa.

**- Bizitako esperientziatik abiatzen zara?**

Ez, diskoko istorio gehienak asmatutakoak dira. Ezin zara identifikatua sentitu gauza ezberdinak kontaktzen dituzten bederatzi abestitan. Beste pertsona baten azalean jartzen naiz abestian sortzeko orduan, eta bere bizimodua, pentsamenduak eta abarrak nolakoak izango lirartekeen pentsatzen dut.

**- Nola egiten duzu abestiak konposatzeko?**

Melodia eta letra batera etortzen zaizkit, trobadoreek bezala, eta, gero, garatu egiten ditut. Adibidez, gauean abesti batentzat zerbait bururatzen zait eta, abiada hartu ondoren, goizean landu egiten dut.

**- Nolako prozesua jarraitu duzu diskoa grabatzeko?**

Lehenik, gitarrarekin abestiak konposatu nituen eta Josu Muñõari bidali nizkion moldaketak egin zitzaizkion. Gero, Legarrek estudiora joan ginen Walter Tuzzeorekin abestiei azken zertzeladak eman eta grabatzeko. Hala ere, abestiak nahiko natural irten dira. Diskoko bederatzi abestiez gain beste hiru editatu nituen, baina niretako gorde ditut. ‘Mi alma vagara’ da abestietako bat eta Nathali Chuchon kantari peruarrek Coliseoan abestu zuen Eibarko Musika Bandarekin. Bestetik, primizia bat emango dizuet. Gabonetako kanta baten bideoa grabatu dut aste honetan Coliseoan, ateak itxita. Abesti hau ez dago diskoan eta, bideoa grabatu ondoren, interneten zabaltzea da asmoa, Gabonak zoriontzeko. “Bihotza bigundu eta haurtzaroa hurbilago sentitzen da”, dio abestiak. Eta datorren urtean beste disko bat egitea da nire nahia. Letrarik ez duen



**JENARO, zure joanera  
 gudan utzi duen itzala izan  
 dadila maite izan zaituztenen  
 betiereko babes eta izara.**

**J.A. Mogel Ikastolako ikasle, guraso eta langileak**



Ennio Morriconeren abesti bat sartu nahi dut, pelikula batekoa. Asko gustatzen zitzaidan eta letra jarri diot, eta abestiak SGA-En erregistratzen ditudanez, SONYrekin berbetan nabil kantua grabatu ahal izateko.

**- Zein musika-estilotako abestiak daude diskoan?**

Baladak, boleroak, runbak eta corrido mexikarrak daude. Abesti guztiak gustatzen zaizkit, baina lehenengoa, 'Adios amor', asko gustatu zaio jendeari. 150 CD kaleratu nituen eta 120 banatu ditut. Jendearen iritzia entzunda, bakoitzari abesti bat gustatu zaiola ikusi dut. Askotariko CDa egiten saiatu naiz.

**- Walter Tuzzeo eta Josu Muñoaren laguntza jasotzeaz gain, jende gehiagok kolaboratu du diskoan?**

Josu Muñoa maisuak MIDI instrumentuen (digitalak) bitartez moldatu ditu abestiak (bibolinak, tronpetak...), baina MIDI instrumentu batzuen ordez benetakoak sartu ditugu soinu erreala goa lortzeko. Horrela, Juan Luis Aguirrek pianoarekin lagundu digu, Kike Martinek bateria eta perkusioarekin, Bernardo Aguilera rekintoarekin, Marisol Arrillagak soinuarekin, Mirari Azkunek trikitixarekin, Fran Retenagak gitarra akustikoarekin eta Bea Lahidalgaxaloeekin. Gainera, Tuzzeok baxua jo du eta Muñoak pianoa.

**- Non erosi daiteke diskoa?**

Ez dago salgai, lagun eta ezagunen artean banatzeko grabatu dut. Momentuz ez dut diskoa salgai jartzeko asmorik, neure gogoz egin dut.

**- Gabonetako abestia, ordea, interneten jartzeko asmoa duzu. Spotify, YouTube eta horrelako plataformetara jautzia emateko asmoa duzu?**

Bai. Gai hauen inguruan ibiltzen den pertsona batekin egongo naiz aholkuak jasotzeko. Gainera, Gabonetako abestia irratietara bidaliko dut.

**- Goazen hastapenetara. Noiz hasi zinen abesten?**

Nire aita musikaria zen eta asko gusta-

**"Gabonetako kanta baten bideoa grabatu dut aste honetan Coliseoan"**

tzen zitzaien gitarra jotzea eta abestea. Etxean gitarra nuenenez, Jorge Negreteren 'El desterrado' eta beste abesti batzuk ikasi nituen. Orain dela gutxi emakume batek esan zidan lehen jaunartzean bere etxean egon nintzela rancherak abesten. 1969. edo 1970. urtean, Vicente Villabella eta biok Jorge Negreteren hiru edo lau abesti kantatu genituen jaialdi batean, Vicente Ramirez 'Vicentin' eta honen aitaren laguntzarekin. Gero, Durangoko lehiaketa batean hartu genuen parte. Euskarazko abestiak egiten hasi nintzen, baina hizkuntza ez nuen ondo menperatzen, ez nuen erraztasunik, eta zaila egiten zitzaidan. Denbora batez musika utzi nuen eta 1997. urtean, 'Eibar kantuan' jaialdiaren lehen edizioarekin batera, berriz heldu nion. Abestiak sortzen nituenean, grabatu eta niretzat gordetzen nituen, eta disko honetan jaso ditut batzuk.

**- Autodidakta izan zara ala formakuntza musikala jaso duzu?**

Autodidakta izan naiz. Gitarra klase batzuk eman zizkidan Segales abizena zuen katalan batek eta nire abestiak moldatu zituen, baina nire kasa ikasi dut bestela.

**- Musikari profesionala izatea pentsatu izan duzu noizbait?**

20 urte inguru nituenean musika-talde bat eduki nuen eta dantzalekuetan jotzen genuen. Ondo pasatzeko egiten genuen, beste barik. Ongintzako jaialdiak egin ditut JD Arrate eskubaloi taldeari laguntzeko eta 'Eibar kantuan' jaialdiko lau ediziotan hartu dut parte. Bestalde, 'Antxiñako eibartarrak' izeneko talde bat sortu genuen lagun batzuek eta habanerak abesten genituen, bai-

**"Momentuz ez dut diskoa salgai jartzeko asmorik, neure gogoz egin dut"**

na taldea desagertu zen. 16 lagun inguru ginen eta karroza batean irteten ginen.

**- Habanerak, boleroak... oso doinu eibartarrak dira?**

Bai, musika mexikarra den bezala. Bitxikeria moduan, Armeria Eskolan abestu nuen lehen kanta, hona iritsi gabe zegoen abesti bat zen. Nire lagun baten ama raketista zen eta Mexikon zegoen, eta diskoa irteten bezain laster semeari bidali zion. Orduan, diskoa entzun eta asko gustatu zitzaigun. 'Lo quieran o no' zen abestiaren izenburua. Armeria Eskolan estreinatu genuen eta publikoak ez zuen ezagutzen.

**- Kalean, tabernetan... abesteko ohitura galdu da?**

Guk zapatu eta domeka guztietan abesten genuen tabernetan. Untzagan egiten zen dantzaldia baino lehen irteten ginen eta koadrilako 15 lagun inguru tabernarik taberna ibiltzen ginen txikiteoan eta kantatzen. Errepertorio ezaguna genuen.

**- Eta tabernako jendea batzen zen?**

Batzuk bai, baina beste batzuek entzun bakarrik egiten zuten. 'Kaleetan kantuz'-ek egiten duenaren antzekoa egiten genuen, baina tabernetan. 'Tabernetan kantuz' izan go litzateke (barreak).

**- Gaztetatik zabiltza kantuan. Ahotsa zaintzen duzu?**

Ez, zortea izan dut. Baliteke tonua pixka bat jaitsi izana, baina bestela berdin jarraitzen dut.

**- Disko berria grabatu duzu, Gabonetako abestiarekin bideoa egingo duzu eta beste disko bat kaleratzeko asmoa duzu. Eta kontzerturik eskaintzeko intentziorik?**

Zaila da. Diskoan instrumentu asko dago eta ez da erraza jende guztia batzea. Baten batek esan dit nire abestiak kantatu nahi dituela. "Aurrera", esan diot.

**- Musika eta zure artekoa bai dela maitasun istorioa!**

Bai. Musikarekin beste dimentsio batera joaten naiz, non nagoen ere ez dut jakiten. Musikak ilusioa eta poza ematen dit, suspertu egiten nau.



**LOLI ORUETA AGIRRE (2019-XI-17)**

**"Gure bizitzaren zati handi bat joan zaigu zurekin, eta hutsune handia laga diguzu bihotzetan"**


**LOLI: ZURE FALTA NABARITUKO DUGU. Musu asko.**

**TXIKITAKO ZURE LAGUNAK:**

**MILA, MARI TERE, MAITE, TXARO ETA M<sup>a</sup> PILAR**







**PERIKO IRIONDO:** Bideak ibai, hilabete guztia euripean.



# ZATOZI!

## JOSTORRATZ ETA HARIA SARETUZ HERRIA

Euskeraren Eguna jai giroan bizitzeko aukera egongo da abenduaren 3an. Haur, gazte eta helduentzako egitaraua prestatu da, euskerak edozein adineko jendearen harremanak batzen dituelako eta, hizkuntza guztiz menperatu edo euskerazko berba gutxi batzuk jakinda ere, euskerak guztiontzako duelako tokia.

## Dantza eta jaia euskararen sarean erortzeko

Euskeraren sarea ehunduko da Eibarren abenduaren 3an, Euskeraren Egunean. Eibarko Euskalgintzak eta Akebai plataformak hainbat ekintza antolatu dituzte, euskeraren egun handia jai giroan bizitzeko. *“Euskeraz bizi garela eta gure arteko harremanak euskeraz egiten ditugula aldarrikatu nahi dugu”*, diote antolatuzaileek. Bestalde, euskeraren sarean eibartar guztiontzako tokia dagoela azpimarratzen dute: *“Euskeraz ondo egiten dutenentzat; hizkuntza ondo ulertu, baina berba ondo egiten ez dutenentzat; edota hizkuntza ulertu ez, baina euskeraren aldeko jarrera dutenentzat”*. Modu horretan, euskeraren sarea ahalik eta zabalena izatea aldarrikatu nahi dute.

Euskeraren egunean poztasuna, alaitasuna eta positibotasuna igorri nahi da. Eguneko lau momentutan dantzaldiak egingo dira Untzagan (ateri badago, harmailen aldean; eta euria egingo balu, udaletxearen aldeko karpan). 11:00etan, 15:00etan eta 15:30ean egingo dira dantzaldiak eta

11:00etan  
DANTZALDIA

15:00etan  
DANTZALDIA

15:30ean  
DANTZALDIA

KALEJIRA  
UNTZAGARAINO  
17:15: Anbulatorioa  
17:30: Depor  
17:45: Untzaga

18:00etan  
EIBARTARROK  
SAREA  
EGINGO DUGU

## EUSKERA<sup>REN</sup> EGUNA ABENDUAK 3

Eibarko EUSKALGINTZA taldea



17:15ean kalejira hasiko da anbulatoriotik (17:30ean geldialdia egingo da Depor parean eta 17:45ean Untzagan).

Kalejira Untzagara heltzean, euskeraren sarea irudikatuko dute parte-hartzaileek. Herritarrek armiarma-sarea osatuko dute 10-12 laguneko taldeetan, batak besteari artille-matazak pasatuz. Kolore ezberdineko sareak egingo dira eta 2020. urtean berriz egingo den Euskaraldiko borobilen itxura hartuko dute urrunetik begiratuta. Bestetik, herriko eskoletako ikasleek ere sareak osatzeko dinamika berdina jarraituko dute goizean euren ikastetxeetan.

Euskeraren sarea irudikatu ondoren, 19:00etan, Udaleko Gobernu Batzordeko al-

derdi politiko guztiek onartu duten Euskeraren Ordenantza berriaren adierazpen instituzionala egingo da udaletxeko pleno aretoan. Eibarko Euskalgintzaren ekimenez bultzatu den egitasmoa izanik, lortutakoaren lekuko izateko eskaintza luzatzen diete herritarrei. Bestetik, aste honetan euskeraren dekretua onartu da Eusko Jaurlaritzan eta, horren arabera, hirigintza-proiektuak eta halako egitasmoak onartu aurretik, euskerari nola eragiten dioten aztertu beharko dute udalek. Horrela, euskera lehenetsi ahal izango dute nahi izanez gero, hau da, deiak euskeraz hartzea, ziurtagiriak euskeraz edo ele biz ematea, argitalpenak eta ekitaldiak gutxienez euskeraz egitea, eta abar.

**Euskeraren Egunean  
poztasuna, alaitasuna  
eta positibotasuna  
igorri nahi da.**







**LUIS ROQUERO**  
(eszena zuzendaria)

## “Komedia korala bihurtu dugu *La Revoltosa*”

Estatuan bira arrakastatsua egin ondoren, *Clasicos de la Lirica* antzerki konpainiak *La Revoltosa* zarzuela eskainiko du Coliseoan, hilaren 30ean, 20:30ean. Zarzuelako lan garrantzitsua da *La Revoltosa* eta XX. mende hasierako obra eguneratu du *Clasicos de la Lirica*ak. Madrilgo korralla batean bihurtuko da Coliseoa eta bizilagunen arteko istiluen lekuko izango dira ikusleak.

### - *Nolako proposamena dakarkigu La Revoltosak?*

XX. mende hasierako zarzuela da *La Revoltosa*. Izaera kostunbrista du eta sasoi hartako Madrilgo girotua. Genero txikiko ikuskizun bezala sortu zen, baina gure moldaketarekin obra handitu dugu, bi ekitaldi eta lau koadro dituen komedia sortuz. XX. mende hasierako Madrilgo korralla bateko auzopatioko giroa islatzen saiatzen gara, gaur egungo auzo-komunitateen antzera. Maitasun, zelo eta desadostasun istorioak ikusiko ditugu, hau da, bizilagunen arteko zalaparta.

### - *La Revoltosa antzezlanak 120 urtetik gora ditu. Nolako moldaketa egin duzue obra eguneratzeko?*

Ikuskizunak Ruperto Chapik sortutako *La Revoltosaren* esentzia orijinalari eusten dio, baina beste autore batzuen piezak erabiliz handitu dugu obra. Abestiek izaera madrildarra dute, obraren dramaturgiarekin bat egiten duen gaiarekin bat eginez. Horrela, bizilagun hauen istorioa luzatzen dugu eta pertsonaiei indar gehiago ematen diegu. Komedia korala bihurtu dugu *La Revoltosa*.

### - *Ikuskizunaren eszena-zuzendaria zara. Nola egiten duzu hainbeste antzezle zuzentzeko?*

Lan asko egiten dugu. Entseguetara aurretiko lanari garrantzia handia ematen diegu. Hasieran, antzezle guztiekin batzen gara, obraren lehen irakurketa egiten dugu eta eszena guztiak sortzen hasten gara. Lehenik, aktoreekin indibidualki egiten dugu lan eta, ondoren, taldeka. Ondo asmatzen saiatzen gara

castinga egiteko orduan, pertsonaien izaerara ahalik eta ondoen egokitzen.

### - *INAEMen Platea programarekin bira egin duzue 2019an. Nolako erantzuna jaso duzue?*

Zoragarria. Poz handia eman digu publikoaren erantzunak eta eurek sorpresa handia hartu dute obrarekin. Saio batzuetan bisak egin behar izan ditugu eta, beste batzuetan, obra eten behar izan dugu publikoaren txaloengatik. Poz handiko urtea izaten dihardu.

### - *Zarzuelak momentu gozoa bizi du?*

Ez, ez duelako behar duen laguntzarik. Hezkuntza arloak eta erakundeek genero hau gehiago sustatu behar dute, eta guztion eskura jarri behar dute ikuskizun hauetarako sarbidea. Zarzuela ikuskizunek gutxieneko kalitatea izan behar dute eta kalitatezko ikuskizunak ikustea ahalbidetu behar zaio jendeari. Mota honetako ikuskizunak lehen aldiz ikusten dituen jendeak errepikatu egiten du ondoren. Guk, adibidez, antzerki batean antzezten badugu, hurrengo biran toki berean antzeztu ohi dugu.

### - *Publiko gaztearengana hurbiltzen saiatzen zarete. Nola?*

Publiko berria sortu nahi dugu, zarzuela publiko nagusiagorekin lotu ohi delako. Horretarako, kalitate handia, proposamen eszeniko erakargarria eta artista gazteak edukitzen saiatzen gara. Zarzuelak bizirik jarraitu ahal izateko belaunaldien arteko erreleboa behar da.

## Giro ederra Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ‘Bizi dantza’ ikuskizunean

Barre artean eta giro ederrean pasatu zuten arratsaldea zapatuan eta domekan, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik Hezkuntza Esparruan egin zen Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren ‘Bizi dantza’ ikuskizunaren estreinaldian. Gainera, pailazoek laguntza berezia eduki zuten, eibartarontzat eza-gunak diren Kezka Dantza Taldeko kideek euren batera dantzan ibili zirenetan.





## Organo emanaldia hartuko du San Andres elizak gaur iluntzean

Gaur 20:00etan hasiko da Loreto Imazen organo kontzertua San Andres elizan. 1956an Donostian jaioa, Loreto Fdez. Imaz organista eta klabezinistak bizitza osoa darama musikagintzan, umetatik ikasten jardun du-eta. Lanbidean 30 urte baino gehiago musika grabatzen, irakasten eta eskaintzen eman eta gero, gaurko kontzertuarekin publikoari bere esker ona adierazi nahi dio. Eskainiko duen egitaraua honakoa da: "Tocatta Prima" (G. Muffat 1653-1704), "Chacona en f." (J. Pachelbel, 1653-1706), "Fantasia pro Organo à 5 vocom" (J.S. Bach 1685-1750), "Consolation Re" (F. Liszt 1811-1886), "Improvisation" (E. Bonnal 1880-1944), "Arabesque" (L. Vierne 1870-1937) eta "L'ange à la Trompette" (J. Charpentier 1933-2017).



## "Haurrak, zertan ari zarete?" ipuin-kontakizuna liburutegian

Haurren Eskubideen Aldeko Eguna ospatzeko ekitaldiarekin bat egingo du Zapatuko Ipuinak oraingoan: Ixabel Agirresarobek "Haurrak, zertan ari zarete?" izenburuko kontakizuna eskainiko du bihar umeen liburutegian, 18:00etan. Saioa 3 urtetik gorako haurrentzat pentsatuta dago eta sarrera doan izango da.



## Liburu aurkezpena

Gaur arratsaldean, 18:30ean aurkeztuko du "El Secreto de Clara Lyndon" liburua Elene Lizarralde, Helmet Housen (Blas Etxebarria, 1). Emakume raketisten historiari buruzko liburua aurkezteko ekitaldian egilearekin berbetan aritzeko aukera egongo da eta sarrera librea izango da, joan nahi duten guzientzat.

## San Andresetako Bertso Jaialdia

Domekan, 19:00etan hasiko da ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen San Andresetako Bertso Jaialdia, Portaleko areto nagusian. Maddalen Arzallus, Unai Iturriaga, Aitor Sarriegi eta Onintza



Enbeitza bertsolariak arituko dira saioan eta gai-jartzailea Jon Mikel Mujika izango da. Urteroko moduan, jaialdia hasi aurretik, 18:30ean, San Andres Bertso Paper lehiaketako sariak banatuko dituzte. Sarrerak 6 euro balio du.



## Sorgina Txirulinen ipuin-musikatua

Bihar arratsaldean, 18:00etan hasiko da "Oihanetik badoaz" izenburuko ipuin-musikatua El Corte Ingleseko ekitaldi aretoan. Sorgina Txirulinen eskutik egingo den saioa 2-5 urte bitarteko haurrentzat pentsatuta dago, euskeraz izango da eta sarrera dohainik izango da.



## Musika Eskolakoak izan dira Santa Zezilia ospatzen lehenak

Gaur Santa Zezilia eguna dela eta, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasle eta irakasleek hori ospatzeko kalejira egin zuten eguazten arratsaldean. Instrumentu eta guzti, Portaletik irten ziren, Toribio Etxebarriaraino eta han pare bat asbesti eskaini eta gero, Depor parean egin zuten hurrengo geldialdia. Kalejira amaituta, txokolate-janarekin agurtu zuten ospakizuna.

Usartza Txistulari Taldekoek, berriz, gaur egingo dute Santa Zeziliaren omenezko kalejira, 19:00etatik aurrera: Urkizutik irtingo dira eta ibilbidean Bittor Sarasketa, Estaziño, Ibarcurtze, Errebal, anbulatorioa, Toribio Etxebarria, Untzaga eta Ego-gain



zeharkatuko dituzte, 21:30ak aldera Guridi taberna parean amaitzeko. Dena dela, eguraldiaren arabera ibilbidea alda daitekeela aurreratu dute.

Eta Eibarko Cielito Musika Bandakoak gaur gauerdian Untzaga-tik abiatuko dira, urteroko moduan "Serenata" eskaintzeko. Santa Zeziliaren omenezko kontzertua, berriz, domekan izango da, 12:30ean Coliseoan. Carlos Sanchez-Barbak zuzenduta, honako piezak joko dituzte: "La rodana" (Ferrer Ferran), "El Tambor de Granaderos" (Ruperto Chapi), "Ross Roy" (Jacob de Haan), "My Fair Lady" (Frederick Loewe) eta "Hercules" (Alan Menken).

## Titirijai Nazioarteko Jaialdiko txotxongiloak Coliseoan

Udalak eta Uni Kultur Elkarteak, Tolosako Ekinbide Etxearen laguntzarekin, Titirijai Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiko ikuskizunetako bat ekarriko dute gurera bihar, 17:00etan Coliseo antzokian (5 euro). Txekiar Errepublikako den Pavel Smid-ek "Un cuento del viento", ume bi eta haize-errota bat protagonista dituen ipuina aurkeztuko

du: "Pablo Tontonarra Delviento munduan zehar aspalditik bidaiatzen dabilen gizon oso berezia da. Haizeak eramanen duen toki bakoitzean haizearen inguruan dihardu. Haizeak jotzen zuen bitartean bizitza oso atsegina zen errontan, baina egun batean haizea geratu egin zen...". Familia osoarentzat moduko saioa izango da (gaztekeraz).



## 50 urte bete dituen Exfibar seilu erakusketa etzi zabalduko dute

Domekan zabalduko dute Portalean "Exfibar 50. urteurren seilu erakusketa", 12:00etan, eta orduan banatuko dizkiete oroigarriak bildumagileei. Arrate Filateli Elkarteak antolatzen duen erakusketa abenduaren 1era arte egongo da zabalik, baina ordutegi berezia izango du: zapatu eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara zabalduko dute eta astelehenetik barixakura, berriz, 18:00etatik 20:00etara (azaroaren 30ean itxita egongo da). Mende erdia bete eta gero, aurtengo zigilu-marka Arrate Filatelia

Elkartearen omenezko izango da eta, oroigarri modura marka gorde nahi duenak domekan izango du aukera, 11:00etatik 14:00etara bitartean ibiliko baitira zigilu-marka ipintzen.



## Nonofobikek publikoa bereganatzea lortu zuten

Oso arrakastatsua izan zen eguaztenean Olatz Beobide, Amaia Lizarralde eta Belen Cruz antzezleek Portalean ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik aurkeztu zuten "Sarean kateatuak" ikuskizuna. Hiru neskek euren burua nomofobikatzen daukate, hau da, ez dakite nola bizi aldean mugikorrik izan ezean, baina euren gaixotasuna umore handiz hartzen dutela argi laga zuten saioan eta ikusleak eurekin batera terapia egite-ara ere "behartu" zituzten.





## Mendi Tour gaur ELGOIBAREN

Gaur 21:30ean hasiko da "Mendi Tour", Mendi Filmeko onena biltzen duen proiektzioa Elgoibarko Herriko Antzokian: "Bayandala-Lord of the Taiga", "Notes from the Wall", "Liv Along the Way" eta "Up to Speed" film dokumentalak emango dituzte, lauk jatorrizko hizkuntzan euskeraz eta gaztelerazko azpitituluekin. Sarrerak 4 euro balio du.



## Antzerkia ERMUKO Lobianon

Bihar 20:00etan antzerkia eskainiko dute Ermuko Lobiano Kulturunean. Gasteizko Detritus Teatru taldearen eskutik "Ovarios verdes fritos" lanarekin gozatzeko aukera izango dute joatera animatzen diren ikusleek. Izan ere, antzezlanak kontatzen duen istorioak berak umorez gainezka egiten du: Mastur Batetu Candida izeneko medikua identitate eta gernu galeretan aditua da eta, zoru pelbiko indartsu batetik abiatuta energiaz betetako buru osasuntsua lor daitekeela oinarri modura hartuta, hori lortzeko sortu duen Txumino Power Revolution programa ipiniko du martxan. Belen Nevado da testuaren egilea, lanaren zuzendaria eta taula gainera igoko den aktorea; arlo teknikoan, berriz, Javi Huetek jardungo du.

## eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

## hildakoak

- M<sup>a</sup> Pilar Velasco Espeso. 85 urte. 2019-XI-13.
- Luis M<sup>a</sup> Lasa Maiztegi. 92 urte. 2019-XI-15.
- Loli Orueta Agirre. 68 urte. 2019-XI-17.
- Mercedes Jauregi Albizuri. 97 urte. 2019-XI-18.
- Jenaro Zabala Berriozabal. 47 urte. 2019-XI-18.
- Ernesto Alberdi Lekunberri. 79 urte. 2019-XI-18.
- Rosario Tejedor Mozo. 93 urte. 2019-XI-18.
- Sofia Larreategi Idigoras. 96 urte. 2019-XI-20.

## jaiotakoak

- Martina Etxaide Iturbe. 2019-XI-16.
- Amanda Muriel Peñas. 2019-XI-17.

## farmaziak

- Barixakua 22  
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Zapatua 23  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Domeka 24  
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Astelehena 25  
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Martitzena 26  
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
- Eguaztena 27  
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Eguena 28  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Barixakua 29  
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)

GAUEZ BETI - 2019AN-  
 Zulueta (San Agustin, 5)

## telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Andretxea.....943 70 08 28
- Alkohol. Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

## SUDOKUA

AURREKOAREN  
 EMAITZA

8	5	3	9	2	4	6	7	1
2	7	4	6	1	3	9	5	8
1	6	9	5	7	8	3	4	2
4	3	8	7	5	6	2	1	9
7	9	2	4	3	1	8	6	5
5	1	6	2	8	9	4	3	7
9	8	7	3	4	5	1	2	6
6	4	5	1	9	2	7	8	3
1	2	3	8	6	7	5	9	4

9			5	3		1		
				4	3	5	6	
			1			9		
4	2			9		6		
	1		7		4		9	
	2			1				
1	8	7	9					
	9		4	8				3



## Barixakua 22

### HONDAKINEN PREBENTZIOA

**16:30/19:30.** Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearekin bat, informazio gunea ipiniko dute. 16:30etik 18:30era haurrentzako bi tailer egingo dira. Untzagako karpan.

### GURASOAK BERBETAN

**17:00.** Familia giroan euskera praktikatzeko aukera ezin hobea. Doan. Saio irekia. ...eta kittol-n (Urkizu, 11 solairuarean).

### DOKUMENTALA

**18:00.** *"Fabricando mujeres ¿consumimos violencia?"* eta solasaldia, SETEM-en eskutik. Portalean.

### URTEURREN JAIA

**18:00.** 1.000 lagunendako moduko tarta erraldoia, dantza ikuskizuna eta Gabonetako argiak piztea. El Corte Inglesean.

### LIBURU AURKEZPENEA

**18:30.** *"El Secreto de Clara Lyndon"*, Elene Lizarralde emakume raketisten historiari buruz idatzitakoa. Helmet Housen (Blas Etxebarria, 1).

### KALEJIRA

**19:00.** Usartza Txistulari Taldearen Santa Zezilia. Ibilbidea: Urkizu, B. Sarasketa, Estaziño, Ibarkurutze, Errebal, Anbulatorioa, T. Etxebarria, Untzaga, Ego-Gain eta, 21:30ak aldera, Guridi taberna inguruan amaitu.

### KONTZERTUA

**20:00.** Organo kontzertua, Lore Imazen eskutik. San Andres elizan.

### SANTA ZEZILIA

**00:00.** Santa Zezilia Serenata, Eibarko Cielito Musika Bandaren eskutik. Untzagatik hasita.

## Zapatua 23

### XVII. TXISTORRAREN EGUNA

**11:00/21:00.** Kilometro bat txistorra pintxotan salgai. Egunean zehar kirol erakustaldiak, musika, jokoak... Antolatzailea: Eibarko Txirindularien Elkarte. Untzagan (karpan).

### UNTZAGAKO JUBILATUAK

**12:00.** Hildako bazkideen omenezko meza, Untzagako abesbatzarekin. San Andres elizan.

**14:00.** Arratera igotzeko autobusak. Ego-Gainen.

**14:30.** Bazkaria Kantabria jatetxean. Omenduei opari-banaketa. Dantzaldia.

### TXOTXONGILOAK

**17:00.** *"Un cuento del viento"*. Pavel Smid (Txekiar Errepublik). 5 euro. Coliseo antzokian.

### ZAPATUKO IPUINA

**18:00.** *"Haurrak, zertan ari zarete?"*, Ixabel Agirresaroberen eskutik. 3 urteik gorako haurrentzat. Doan. Umeen Liburutegian.

### IPUIN MUSIKATUA

**18:00.** *"Oihanetik badoaz!"*, Sorgina Txirulinaren eskutik. 2-5 urteko haurrentzat. Euskeraz eta doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

## Domeka 24

### MARTXA SOLIDARIOA

**10:00.** Marcan Huella-rena. Usartzatik abiatuta.

### BAKAILAO TXAPELKETA

**11:00.** XXVII. Bakailao Txapelketa "San Andres Saria". Untzagan (karpan).

### KONTZERTUA

**12:30.** Santa Zezilia kontzertua, Eibarko Cielito Musika Bandaren eskutik. Coliseoan.

### PATINAK IPURUAN

**17:45/19:45.** Patinatzeko pista. Ipurua kiroldegian.

### BERTSO JAIALDIA

**19:00.** San Andres bertso jaialdia: Maddalen Arzallus, Unai Iturriaga, Aitor Sarriegi eta Onintza Enbeita. Gai-jartzailea: Jon Mikel Mujika. Jaialdiaren aurretik, 18:30ean, San Andres Bertso Paper lehiaketako sariak banatuko dira. ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Portalean.

## Astelehena 25

### ELKARRETARATZEA

**12:00.** Jubilatu eta Pentsiodunen elkarretaratzea, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

### INDARKERIA MATXISTAREN KONTRA

**17:00/19:00.** Txoko Lila, LHko ikasleentzat.  
**20:00.** Indarkeria Matxisten Kontrako elkarretaratzea. Untzagan.

### GURASOAK MARTXAN

**18:30.** *"Aprendizajes: familia, escuela, amigos/as"*, LHko haurren gurasoentzat. Baigararen eskutik. Portalean.

## Martitzena 26

### IKASTEN

**10:00.** *"Berpizkundera made in China (I)"* hitzaldia, Urko Barros historiagilearen eskutik. Sarrera libre. Armeria Eskolan.

### IKASTEN

**16:00.** Puntu-tailerra.  
**17:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

### TAILERRA

**17:30.** Munduko janariaren tailerra. Portalean (sukaldean).

### LIBURU AURKEZPENEA

**18:00.** *"Nik sinisten dizut. Bortxaketaren kultura eta Sanferminetako kasua"*, Samara Velte Moranen liburuarena. Portalean.

## Eguaztena 27

### IKASTEN

**08:09.** Ibilaldia: Donostiako Itzulia (1. etapa). Donostiko udaletxea-Igeldo-Añorga Txiki (15 km.). Bazkaria eraman. Trenaren irteera ordua Ardantzatik (Estaziñotik 08:11ean).

### GURASOAK MARTXAN

**18:30.** *"Garapena eta gestio emozionala"* HH eta LHko haurren gurasoentzat. Baigararen eskutik. Portalean.

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19:00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

### BILERA

**19:30.** Udalaren eta herritarren arteko auzo-bilera. Untzagako jubilatuen etxean.

## Eguena 28

### IKASTEN

**10:00.** *"Garcia Lorca. Idazlearen azken egunak. Fusilamendu baten kronologia eta zentzugabekeria"* hitzaldia, Jose Ignacio Olaberen eskutik. Sarrera libre. Armeria Eskolan.

### ODOL-EMATEA

**18:00.** Odola emateko saioa, odol-emaiementzat. Anbulatorioan.

### KALEETAN KANTUZ

**18:00.** Dantza taldearen entsegua. Untzagako jubilatu etxean.  
**19:00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

### DOKUMENTALA

**19:00.** *"Supervivencia y rebelion de las mujeres en el conflicto armado"* eta solasaldia. Aura Marina Yoc Cosajay (Colectiva Actoras de Cambio de Guatemala). Portalean.

### BILERA

**19:00.** Udalaren eta herritarren arteko auzo-bilera. Urkiko parrokian.

**Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurra etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezu.**




Zorionak, NAIA, hillaen 25ian 6 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat, aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak MARKEL, 8 urte famelixia alaitzen! Besarkada haundi bat famelixaren eta, batez be, Beñaten partez.



Zorionak, LORE, domekan 3 urte beteko dozuz-eta. Muxu potolo bat etxekeuen eta, batez be, Oierren partez.



Zorionak JANIRE!, atzo urtiak bete zenduaz-eta. Musu potolo bat famelixaren partez. Oso maite zaittugu!



Zorionak, AIZEA Barrutia, hillaen 13an zure eguna izan zalako. Etxeko guztien eta, batez be, Ane eta Maialenen partez.



Zorionak, IZARO, hillaen 11n 11 urte bete zenduaz-eta. Jarraitu bizipoz horrekin. Musu bat famelixaren partez.



Zorionak, ANDER, hillaen 10ian 10 urte egin zenduaz-eta. Asko maite zaittugu. Etxekuak eta, batez be, zure anaixa Josuren partez.



Zorionak, JARE eta MADDI. Bixar, 7. urtebetetziari, musu haundi bana hartu famelixako guztien partez.



Zorionak, AMETS, zapatuan 2 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, JOSEAN, bixar urtiak egingo dozuz-eta. Segi holan, mutil haundi! Etxeko eta lagunaren partez.

## Erakusketak

### Azaroaren 30era arte:

- ENRIQUE LORENZOREN ARGAZKIAK (El Ambigú taberna)
- TONI CATANYREN ARGAZKIAK (Eibarko Klub Deportiboa)
- SILVIA TARDÍO, ESTRELLA TARDÍO ETA FERNANDO SOLANAREN ARGAZKIAK (Portalea jatetxea)

### Abenduaren 1era arte:

- "SUKALDATZEN MADE IN EIBAR" (Armagintzaren Museoa)
- "LARRABEITI PINTOR, LARRABEITI FUTBOLISTA" (Untzagako Jubilatutxoa)

### Azaroaren 24tik abenduaren 1era:

- EXFIBAR 50. URTEURREN SEILUAK (Portalea)

## zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

23an: 19:45, 22:30

24an: 20:00

25ean: 20:30

"Secretos de Estado"

Zuzendaria: Gavin Hood



(2 ARETOAN)

23an: 19:45, 22:30

24an: 17:00, 20:00

25ean: 20:30

"Pequeñas mentiras para..."

Zuzendaria: Guillaume Canet



(ANTZOKIAN)

23an: 17:00<sup>(1)</sup>, 19:45, 22:30

24an: 17:00<sup>(1 ARETOA)</sup>, 20:00

25ean: 20:30

"Si yo fuera rico"

Zuzendaria: Alvaro Fernandez



(ANTZOKIAN)

23an: 17:00

24an: 17:00<sup>(2 ARETOA)</sup>

"Animales en apuros"

Zuzendaria: Victor Azeev





**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.2. Errentan

- Lau irakasle pisua hartuko lukete Eibarren alokairuan. Bermearekin. Tel. 634-419894.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Bulegoa salgai Bidebarrieta 27ko 2. solairuan. 30 m<sup>2</sup>. Kanpora begira. Zerbitzu orokorrekin. Prezioa adosteko. Tel. 607-658356.

### 3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Arrate Biden, beheko solairuan. 95 euro hilean. Tel. 658-724552.
- Garajea alokagai Ipuruko dorreetan. Tel. 943-700173 eta 629-453397.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Emakumezkoa eskaintzen da etxeak garbitzeko eta gauzez nagusiak zaintzeko. Tel. 602-490595.
- Emakumezkoa eskaintzen da etxeak garbitzeko eta gauzez nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 603-346659.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-329213.
- Mutila eskaintzen da pintore-laguntzaile moduan, eraikuntza edo arotz-lanetarako eta nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere). Tel. 697-666992.
- Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 610-800063.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan eta ospitalean ere. Tel. 612-574783.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 633-434249.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 663-522072.

- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta tabernan edo dendan lan egiteko. Tel. 666-843393.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-628807.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 689-630372.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 677-137348.
- Neska eskaintzen da tabernak, pegorak edo etxeak garbitzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 642-250488.
- Emakumezkoa eskaintzen da Durangon nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Esperientziarekin. Tel. 644-558390.
- Emakumezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko. Tel. 635-587617. Margarita.
- Emakumezkoa eskaintzen da etxeko lanak edo garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 602-850826.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 682-277198.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-576491.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita asteburu arratsaldeetan ere. Tel. 607-417638.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 697-754174.
- Neska euskalduna eskaintzen da denda edo harrera-gune batean lan egiteko. Esperientzia. Tel. 635-706717.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita gauzez eta ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 677-048696.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-229408.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta igeltsero jarduteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 602-188264.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 632-292690 eta 659-033477.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan, gauzez eta ospitalean ere. Erreferentziak. Tel. 688-714388.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak edo garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 643-076427 eta 612-514135.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 658-385055.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-241311.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 632-415374.

## 4.2. Langile bila

- Langilea behar da estetika zentro baterako. Tel. 690-201160.
- Grafiteroa behar da etxea apaintzeko. Tel. 689-232882.
- Dekoratzaila behar dugu Eibarko denda dekorazio batean. Bidali curriculum: m.c.agirrezabal@gmail.com
- Emakumezko euskalduna behar da arratsaldez umea lau orduz zaintzeko. Tel. 619-150710.
- Kamarera/o behar da Eibarren egun osorako. Bidali curriculum: tre@euskalnet.net
- Sukalde-laguntzailea behar da. Bidali curriculum honako helbidera: bar.oferta-empleoeibar@gmail.com

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskeraerak

- Pertsona behar da asteleheneetik eguenera LH1-eko 4. mailako klase partikularrak emateko. Tel. 699-476137 edo whatsapp bidez.

### 5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta modulorako klase partikularrak ematen dira. Tel. 678-937827. Patricia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Gitarra elektrikoa salgai. Tel. 605-711422.
- Ohe artikulatua (0'90) salgai. Koltxoia eta almohadarekin. Tel. 671-258740.
- Kafetera expres (Fagor) salgai: bi tazakoa. 30 euro. Tel. 659-538158.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Aurreko domekan gizonezko ezkontza-eraztuna galdu da Ipurua inguruan. Barruti grabatuta dago. Tel. 650-073897.
- Urriaren 27an umearen erlojua (beltza eta gorria) galdu genuen Barrrena-Saratsuegi inguruan. Tel. 635-740726.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eus

# Hyundai KONA Hibrido elektriko berria

Bluelink  
konektagarritasunarekin



MOVE Smart programa

hileko **220** €-tik aurrera

220€ko 47 kuota  
Sarrera 6.199,00€  
Azkeneko kuota:  
11.124,94€  
T.A.E. %7,82

- + 5 urterako bermea km-mugarik gabe
- + 5 urterako errepideko laguntza
- + 5 urterako mantenimendua
- + 5 urterako mapen aktualizazioa
- + Itzultze konpromisoa
- MyHyundai

Hyundai Kona Hibrido elektriko Berriak gidatzeko gozamina beste maila batera igotzen du. Teknologia adimentsuari eta Bluelink konektagarritasun sistemari esker, zure smartphonearekin kontrolatu ahalko duzu une oro. Gainera, **Find May Car** sistema berritzailearekin, non aparkatu duzun gogoratzen ez duzunean aurkitu egingo duzu autoa. Kona Hibrido elektriko Berria Hyundai Kona Gama osatzera dator, eta **Espainiako 2019ko Urteko Kotzerik Onena** izendatu dute. Kona familiako kide berriak kotxe hibrido batengandik espero duzuna baino gehiago eskaintzen dizu.

Baina hau hasiera besterik ez da. Prest zaude? Etorrizun hibridoa zain dugu. Zer izango da hurrengoa?

ABC 2019 Con etiqueta ECO  
**OARSO CAR**  
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPIZKOARAKO  
WWW.OARSOCAR.COM

**GRUPO EASO MOTOR**

**ELGOIBAR**  
Olaso Polig., 17  
943 74 14 80

Erakusketa berria  
**ARRASATE**  
San Andres Auzoa, 6  
943 79 70 06

**HYUNDAI**

**5** KM MUGARIK GABEKO BERMEA

**8** URTE BATERIA BERMEA

Hyundai KONA HEV Gama: CO<sub>2</sub> emisio konbinatuak (gr/km): 114-122. Kontsumo konbinatua (l/100km): 5-5,4. WLTP homologazio-ziklo berriaren arabera lortutako kontsumo eta emisioen balioak. CO<sub>2</sub> emisioak (gr/km): 90-99 NEDC ziklo korrelatuaren arabera lortutakoak.

Hyundai MOVE Smart finantzazio adibidea Kona HEV 1.6 GDI 104kW (141CV) KLASAerako: Prezioa 23.890,00€. Sarrera 6.199,00€. Eskatutako kopurua 17.691,00€. Formalizazio-komisioa (%3): 530,73€ eskura. 48 hilabeteko epea. 220€ko 47 kuota eta azkeneko kuota 11.124,94€koa. TIN %6,50. T.A.E. %7,82. Zor-dututako kopuru osoa 21.995,07€. Eskaintza finantzazioa Banco Cetelem S.A.U.k sartu eta onartu behar da. PSP gomentatuta. Penintsula eta Batakartean. BEZ, gantziak, matxizazio-erregia, zuzapen-erregia, kontzesionarioaren ekarpena eta mantenimendu-erregia barne. Hyundai Adoseta Plana aplikatu daiteke erabiliko auto baten truke. 6 hilabeteraino, Hyundai berri bat erosten duen bazterrean titulartasunaren. Finantzazioari lotutako gastuak ez daude barne (Komisioak, Interesak edo Aseguru Programak); www.hyundai.es/configurador webgunean ikusgai. Eskaintza 2019/11/30era arte da baliozkoa. Ikusten diren modelok: Kona HEV Style. Mantenimendua ibilgailuaren finantzazioari lotua. Hyundai Motor España S.L.U.k bere azken bezereoi eskaintako kilometro-mugarik gabeko 5 urteko bermea eta tentsio altuko bateriarekin 8 urtekoa edo 200.000 kilometrokoa (aurrera gertatzen dene) Hyundaiaren sare ofizialak salduko dituzten Hyundai ibilgailuetan soilik aplikatuko da, zerbitzu-pasaporteen baldintzen arabera. Kontsulta itzazu Hyundai MOVE Programaren baldintzak Hyundai kontzesionario-sarean edo www.hyundai.es/hyundaiMOVE webgunean.

# BENICOBA

ETXEKO TRESNAK  
SUKALDEKO ALTZARIAK

943 20 39 02

Juan Gisasola, 12-14

606 83 83 61

**SANANDRESETAKO  
PROMOZIOA** azaroaren 22tik  
abenduaren 5era (stock-a amaitu arte)  
eta beste eskaintza batzuk



**ONDO PASA SANANDRESETAN!**





**Zezenbide**  
S.COOP.

**EIBAR**

**LASTER  
ERAIKIKO DIRA**



**AUKERA  
EZIN  
HOBEA**

**9**



## **ETXEBIZITZA KOOPERATIBAN**

**HIRU LOGELAKO ZORTZI ETXEBIZITZA  
ETA LOGELA BAKARREKO  
ETXEBIZITZA BAT**, euren trasteleku eta  
sukalde ekipatuarekin.

Erdi-erdian, Isasi eta Zezenbide  
kaleetako izkinan. **Untzaga Plazatik  
metro gutxi batzuetara.**

KUDEAKETA:

INFORMAZIOA ETA SALMENTA:

FINANTZAKETA:



**Larragest**  
AGENCIA INMOBILIARIA

**bankoá** CAE  
Groupe  
Crédit Agricole

**943 20 00 12 / 660 976 156**

[www.zezenbide.com](http://www.zezenbide.com)